

Baron Rojo Arrasaten

Gazteek ere jarraitzen dute
KULTURA 20-21



Aloña Mendik 4-3 irabazi dio Pasaiari

UDAK ere irabazi egin du (1-2).
Mondrak, berriz, galdu (2-0).
KIROLAK, 12-13

'Yo, Satan' antzezlan

Amaia antzokia bete egin zuen
KULTURA, 24



ASTELEHENEKO Goienkaria

ASTELEHENA • 2006ko urtarrilaren 23a • 2. urtea • 86. zenbakia • 0,90 euro

Udalsarea 21eko kide egingo dira ibarreko udal guztiak eguaztenean

Iraunkortasunaren Euskal Udalerrien Sareak batzarra egingo du Gasteizen kide berriekin

Ingurumena, ekonomia eta arlo soziala modu iraunkor baten gestioatzea da Iraunkortasunaren Euskal Udalerrien Sarearen asmoa eta eguaztenean Gasteizen egingo duten ekitaldiaren ondoren, Debagoieneko udalerririk guztiak izango dira Udalsare 21eko kide. Mankomunitatearen laguntzarekin, Iraunkortasunerako Ekintza plana egiten aritu dira

aurreko hilabeteetan –Arrasatek bazeukan egina, 2000tik delako Udalsareko kide– eta, aurrerantzean udal bakoitzari dagokio adostutako ekintza zehatzak gauzatzea.

Bestalde, Mankomunitateak ingurumenarekin lotutako kanpaina bat hasi du: egunero sortzen ez ditugun hondakinak biltzeko azpiegituren gainean. **2-3**

66 UDALERRI
Udalsare 21 hiru lurraldeetako 66 udalerririk osatzen dute, tartean, Arrasatek

ANTZUOLA AZKENA
Antzuola izan da ibarrean Iraunkortasunerako Ekintza plana osatu duen azkeneko udalerririk

LEHIAKETA
Informazio kanpainarekin lehiaketa ere antolatu du Mankomunitateak, hil honen amaiera bitartean

HIRU GARBIGUNE
Egunero sortzen ez diren hondakinak batzeko puntu berde mugikorrek eta hiru garbigune daude ibarrean



AITOR INZA

PAULO ELKORORI ONGIETORRIA EGIN DIOTE HERRITARREK

Atzo arratsaldean egin zioten ongietoria Paulo Elkorori bergararrek. Hiru urte egin ditu Espainiako espetxetan eta aurretik 8 hilabete ere egon zen Alemanian preso. Ekitaldia hunkigarria izan zen eta berak hunkigarriago egin zuen senideen eskuetatik jasotako loreak haiei itzuli zizkielako, jasotako elkartasunaren truke. **5**

Seminarioko auditorioaren proiektua eman du Udalak **4**

Debagoiena ere badago etzi Madrilen hasiko den Fitur azokan **8**

Sagardo denboraldia hasi da gurean ere

Alberto Inurrategik zabaldu du Aramaion ibarreko sagardo denboraldia. Berari egokitu zitzaion lehenengo txotxa egitea, Zapi-raingo sagardoarekin izan bazen ere. Atzo, berriz, ibarreko urteko txakolina ezagutu eta dastatzeko aukera izan genuen Angiozarko Partaitti auzoan. Javier Arregik Kataide txakolina han aurkeztu zuen, ohiturari eutsiz: "Euri gutxi egin du eta iaz baino mahats gutxiago batu dugu, baina oso ona dago txakolina". **6**

SUPER AMARAN autoa uztea ez zaizu ezer kostatuko

SANTALAITZ KALEA

50 LEKU

SUPER AMARA

AMILLAGA KALEA

SUPER AMARA

San Lorenzo Poligonoa • Amillaga Kalea 18 • Bergara

GEUREAN

- Bergarako Zabalotegiko bizilagunak sinadurak batzen dihardute hirigintza proiektuaren kontra | 7
- Aramaioko Udalak aurrekontuak aztertuko ditu eguztenean osoko bilkuran | 8

Abaroako erretiratuek mahai-joko txapelketako sariak jaso zituzten egunean | 5

DEBAGOIENA ERE UDALSARE21EN

EGUAZTENEAN EKITALDIA | DEBAGOIENEN UDALERRI GUZTIAK UDALSARE21EN KIDE IZANGO DIRA GASTEIZEN EGINGO DEN EKITALDIAREN OSTEAN

Ingurumena hobetzeko konpromisoa hartuko dute udal guztiek

Iraunkortasunaren Euskal Udalerrien Sareak ingurumenaren alde jarduteko zerbitzua ematen du. Hortxe kokatzen da, esaterako, hondakinak batzeko kanpaina

Marijo Deogracias

Iraunkortasunaren Euskal Udalerrien Sareak batzara egingo du etzi, urtarrilak 25, Gasteizen. Debagoieneko udal guztiak -Arrasate bazegoen- sartuko dira ekitaldi horretan Udalsare21en. Ibarrean erabaki hori onartzen azkenekoa Antzuolako Udala izan da. Udalean egindako azkeneko osoko bilkuran onartu zuen Antzuolak Udalsare21 Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarean sartzea, bide batez, Tokiko Agenda 21 garatzeko.

Berba potoloak dira, baina guztiak elkarbizitzarako protokoloaren parte dira, hau da, herritarren bizi-kalitatea hobetzeko asmoz, biziraupena eta ingururakiko errespetua (Ingurumenaren Iraunkortasuna), zuzentasun eta justizia soziala (Iraun-

kortasun Soziala) eta Ekonomiaren oreka (Iraunkortasun Ekonomikoa) bultzatzen dira Tokiko Agenda 21en. Eta hori aurrera eramateko Udalsare21en elkartzen dira udalerriak.

KANPAINA BERRIA

Tokiko Agenda 21ek duen egitekoen artean Ingurumenaren Iraunkortasuna dago, eta hortxe kokatzen da, esaterako, Debagoieneko Mankomunitatearen zabor bilketa zerbitzua. Horren haritik, kanpaina bati ekin dio

Antzuola izan da ibarrean azkena udalsare21en sartzen



JOSETXO ARANTZABAL

Bergaran, Angiozarrera bidean, San Kristobal auzoan dago garbigunea.

Mankomunitateak "herritarrak kontzientziatzeko, informazioa emateko eta egunero sortzen ez diren hondakinak biltzeko balio

Egunero sortzen ez diren hondakinak batzeko zerbitzuen kanpaina berria

duen hainbat azpiegituren erabilera bultzatzeko". Horixe azaldu digu Udaltalde 21eko Debagoieneko koordinatzaileak. Marta Garmendia da bera eta azaldu digunez, "kanpaina ibarreko bizilagunen artean egindako inkestak eman duen emaitzetatik abiatu dugu. Hondakinak batzeko zerbitzuaren erabilgarritasunaz eta herritarren ezagutzaz jakin nahi genuen. Inkestak esan digunez, askok ez dute oso argi zer egin

behar duten, esaterako, sukaldetan erabilitako olioarekin, sakelako telefono zaharrekin, etxetresna elektriko txikiekin, pintura-hondarrekin eta antzekoekin".

Hori dela eta, informazio kanpainari ekin dio Mankomunitateak eta hain justu Arrasate, Bergara eta Oñatiko garbiguneak eta puntu berde mugikorrek nola dabilzan azaltzen ditu kanpainak, besteak beste. Guk hiru garbiguneen datuak ere batu ditugu.

Hiru garbiguneetako datuak

	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Zura, egurra (Tn)	861	928	927	1.020	1.089	974
Obra-hondakinak (Tn)	1.780	1.787	2.067	2.136	2.271	2.331
Plastikoa (Tn)	386	324	289	305	313	303
Txatarra (Tn)	304	360	363	412	378	373
Kartoiia-Papera (Tn)	244	232	202	192	183	187
Linea gris-marroia (Tn)	37	43	47	44	61	78
GUZTIRA (Tn)	3.612	3.673	3.895	4.107	4.295	4.246
Bateriak (unitatea)*	562	728	788	787	763	2,5
Fluoreszenteak (unitatea)*	1.205	3.509	6.925	10.845	12.864	3

*Bateriak eta fluoreszenteak orain kiloka kontatzen dira.

Mankomunitateak egindako inkestaren gaineko emaitzak*

• 800 INKESTA

Mankomunitateak birziklatzeko ohiturez eta hondakinak batzeko azpiegiturak zelan erabiltzen diren jakiteko 800 laguni egin zien inkesta.

• OHIKOAK EZ DIRENAK

Sukaldean erabilitako olioak, sakelako telefonoak, etxetresna elektriko txikiak, disolbatzaileak, pilak eta antzekoak nora bota daitezkeen ez daki jendeak.

• PUNTU BERDE MUGIKORRA

Gehienek ez dakite puntu berde mugikorra martxan dabilenik.

Antzuola eta Elgetan dute zerbitzu honen ezagutzarik handiena (%59); txikiena, Arrasaten (%41).

• PAPERA ETA KARTOIA

Gehien birziklatzen diren hondakinak arruntan dira: papera eta kartoiia, beira eta ontzi arinak, inkestako datuen arabera.

• GARBIGUNEEN ERABILERA

Galdetutakoen %19k urtean 2-10 aldiz erabiltzen ditu. Galdetutakoen %41ek ez daki ezer garbiguneen gainean.

• ZERBITZUARI BURUZ

Edukiontzia gehiago eskatzen dira, eta zaborra maizago jasotzea; piletzat edukiontzia gutxi daudela diote eta bilketako kamioiek zarata handiegia egiten dutela.

• ZERGEI BURUZ

Galdetutakoen %49k uste du zabor gehiena sortu eta gutxien birziklatzen duenak zabor-tasa handiagoa ordaindu beharko lukeela.

*Inkesta 2004ko azaroaren 25etik abenduaren 2ra egin zen, telefonoz.

MARTA GARMENDIA | DEBAGOIENENKO UDALTALDE21-EN KOORDINATZAILEA

“Zerbitzuen erabilera baxua ezjakintasunatik da”

Marijo Deogracias

Debagoieneko Mankomunitatean dihardu Martak. Mankomunitateak hasi duen informazio kanpainaz aritu gara berarekin.

Birziklatzeko ohiturei eta hondakinak biltzeko azpiegituren erabilerrari buruzko azterketa egin du Mankomunitateak. Zergatik?

Papera, beira eta bestelakoak birziklatzeko ohitura nahiko barneratuta dago herritarren artean. Baina badira beste hondakin batzuk nora batu behar diren jendeak ez dakiena, esaterako, pilak, pintura poteak eta antzekoak, hau da, egunero erabiltzen ez diren hondakin arriskutsuak. Inkestak erakutsi digu horiek biltzeko zerbitzuen erabilera baxua ezjakintasunagatik dela, hau da, herritar gehienek ez dakitela horiek batzeko zerbitzua dagoenik ibarrean.

Nora batzen dira horrelako hondakinak?

Oñatin, Arrasaten eta Bergaran garbiguneak daude, eta horrez gainera, puntu berde mugikorra deitzen denak funtzionatzen du. Pilak batzeko, berriz, dendetan eta ikastetxeetan daude horretarako egokitutako ontziak. Hasi berri dugun informazio kanpaina horri buruz ariko da.

Daquen zerbitzua nahikoa da ibarrean sortzen den hondakin kopuruari aurre egiteko?

Bai. Hala ere, puntu berde mugikorraren maiztasuna, esaterako, gehitu egin dugu. Lehen hilean behin izaten zen, herri bakoitzean. Eta aurrerantzean hilean birritan edo hirutan –lau edo bost astekoa den hila, horren arabera–. Garbiguneen kasuan, egin dugun inkestak erakutsi digu, herrian garbigunerik ez duten herritarrek direla zerbitzu hori gutxien ezagutzen dutenak. Izan ere, Arrasatekoak Aramaio eta Leintz aldea hartzen du; Bergarakoak, Antzuola eta Elgeta; eta hirugarrena Oñatiko garbigunea litzateke.



M.D.

“Puntu berde mugikorraren maiztasuna gehitu egin dugu”

“Gaur egun 174 puntutan batzen dira pilak: denda, udaletxe, eskola eta saltoki handietan”

Pilen kasuan, bestalde, dendariak eurek pilak batzeko ontzia eska dezakete. Gaur egun 174 puntutan batzen dira pilak, udaletxe, ikastetxe, denda eta saltoki handietan.

Tokiko Agenda 21aren lehenengo fasea amaitu duzue. Orain zer?

Udal bakoitzak bere diagnostikoa egin du eta ekintza planak onartuta dituzte. Aurrerantzean bakoitzak erabakiko du nola garatuko duen bere plana, ahalmenen arabera. Udaltalde21en batera joan ziren, baina aurrerantzean bakoitza berearekin arituko da.

Aramaioko zabor bilketa Zuiako koadrilaren zerbitzuarekin eta Ecovidrio enpresarekin egiten dute

Aramaio Debagoieneko Mankomunitatek kanpo geratzen denez, hango Udalak beste era baten ditu antolatuta herriko hondakinak batzeko zerbitzuak. Beira batzeko edukiontzia, esaterako, Laudioko Ecovidrio enpresak kudeatzen ditu. Udalak zerbitzua kontratatu zuen eta haiek arduratzen dira edukiontzia hustu, garbitu eta konponketak egiteaz.

Plastikoak, berriz, Zuiako koadrilaren zerbitzuarekin biltzen dira Aramaion, Estribaciones del Gorbeko Kontsorzioarekin, hain justu. Zerbitzu horri dagokionez, 2004tik 2005era plastiko gehiago batu da. 2004an 9.680 kilo plastiko batu ziren eta iaz, berriz, 12.980 kilo. Andres Osinaga zerbitzuarekin zinegotziak adierazi digunez, “beiraren batze zerbitzua autogestionatzera iritsi den zerbitzua da, eta plastikoarena ere errentagarri izatera heldu da”.

2006-2007 ikasturtean Eskolako Agenda 21 ibarreko ikastetxe guztientzako egingo dute

Arrasateko ikastetxeak Udalako Natur Eskolan arituko badira ere, ibarreko beste ikastetxeetako ikasleek guztientzako kudeatuko den Eskolako Agenda 21 zerbitzua izango dute 2006-2007 eta 2007-2008 ikasturteetan. Oñatiko eta Arrasateko natur eskolak eta Eskoriatzako Ibarraundi museoak eskaintzen dutenarekin eratuko da ibarreko ikasleendako natur hezkuntza programa. Gaur egun ere zerbitzu horiek erabiltzen dituzte ikastetxeek, baina bakoitza bere aldetik aritzen da. Hori dela eta, Mankomunitateak bultzaturik, Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklotik hasi eta DBHrainoko ikasleek Eskolako Agenda 21 garatzeko aukera izango dute ibarrean horrelako ekintzak antolatzen diren hiru lekuetan.

Aurten aterako du Mankomunitateak zerbitzu hau nork kudeatuko duen erabakitzeke lehiaketa.

Egunero sortzen ez diren hondakinak batzeko garbiguneak eta puntu berde mugikorrak

Puntu berde mugikorra orain arte hilean behineko zerbitzua izan da. Aurrerantzean maiztasun handiagoarekin arituko dira. Horrela, txandakako sisteman, hilean birritan edo hirutan igaroko da herri bakoitzetik. Sukaldeko olio erabilia, fluoreszenteak, bateriak, toner kartutxoak, erradiografiak, pilak, sakelako telefonoak, termometroak, etxe tresna elektriko txikiak, motore olioak (ontzi itxietan), pinturak (ontzi itxietan), disolbatzaileak (ontzi itxietan), garbitasun produktuak (lixiba, amoniakoa,...), pestizidak eta antzerakoak (ontzi itxietan), aerosol ontzi beteak edo erdi beteak batzen dira, adostutako egun eta ordutegian. Oñati, Arrasate eta Bergarako garbiguneetan, berriz, astelehenetik egubakoitzera 9:00-12:30 eta 16:00-19:00 eta zapatutan 9:00-13:30 ordutegian daude zabalik, irailetik uztaile bitartean.

Kontzientziaziorako lehiaketa antolatu dute

Debagoieneko Mankomunitateak, hondakinak batzeko zerbitzuen gaineko kontzientziazio kanpainarekin batera, lehiaketa ere eratu du. Urtarrilaren 31ra bitartean izango dira zabalik lehiaketarako egokitu diren postontziak.

Parte hartzeko hainbat modu dago “Ez dakizula zama handi hori gainetik nola kendu?” galdera lelo modura daraman lehiaketan. Batetik, slogan, aholku, asmakizun, txiste edo bertsoen bat asmatuta hondakinen kudeaketa, bilketa, birziklatzea eta bestelako gaine-

an. Bestetik, hainbat hedabidetan –tarteetan *Goienkarian*– atera diren iragarkietako hitz ezkutuaren joko osatuz.

Erantzunak urtarrilaren 31ra bitartean udaletxeetan jarri diren postontzietara eraman edo emailaz bidali ingurumena@debagoiena.net helbidera.


Txapelketaren irabazleak hiru hondakin motentzako ontzia eskuratuko du. Modalitate bakoitzean sariketa bat egingo da; hortaz, guztira, sei sari banatuko dira parte-hartzaileen artean.

HITZ EZKUTUA

- 1- Puntu berde mugikorrak erabiltzen duen ibilgailua
- 2- Hondakin baltia eta oso kutsakorra
- 3- R bikoitza duen haraneko herri handia
- 4- Kristala
- 5- Haraskatik bota behar ez den likido horia

- 6- Gu bizi garen eskualdea
- 7- Haraneko hondakinak arduratzen den erakunde
- 8- Txapelketa honen gaia
- 9- Puntu mugikorraren kolorea

Ken ezazu zama handi hori, ezabili egunero sortzen ez diren hondakinak biltzeko zerbitzuak (garbiguneak, puntu berde mugikorra eta pilak jasotzeko ontziak.)



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

SEMINARIOA | ASPIAZUK, ARREGIK, SABADIEK ETA ARANBURUK EGINGO DUTE SEMINARIOKO AUDITORIOAREN PROIEKTUA

Bergarako auditorioa Seminarioko elizan egingo du Udalak

Lauzpabost hilabetetan idatzita egongo da proiektua eta gero finantziario planari ekingo diote

Seminarioko elizaren erretaula ostea luzatuko dute eta eserleku kopurua bikoiztu egingo dute

Marijo Deogracias

Seminarioko elizan auditorioa egiteko azterketa teknikoa "positiboa izan da eta adjudikatuta dago proiektua. Lauzpabost hiletan esango da zelakoa izango den auditorioa eta diruaren arabera gauzatuko da". Hitz horiekin azaldu zigun Bergarako alkate Victoriano Gallastegik herrian aretoa egiteko hartu den erabakia. Bergaran zinema izatea eskatzen dutenen gainean galdetzeko izan ginen alkatearekin joan zen egubakoitzean eta "orain dela pare bat hilabete Ereite enpresako Javier Sabadie teknikoak Seminarioko elizaren azterketa teknikoa, Zabalotegikoaren aldean, hobea zela azaldu zigun. Zabalotegikoak diru gehitxo suposatzen zuela, aldi baterako areto bat han egokitzeko. Hortaz, eta Espainiar estatuaren baimena badugunez, Seminarioko aukera hobetsi genuen" esan zigun.

Errege Seminarioa Udalarena izateko hitzarmena pare bat hilabetetan gauzatuko da

"Novedadesek hiru hilero 2.500 lagun hartzen zituen. Errentagarri izateko gutxitxo"

ASPALDIKO EGITASMOA

Bergarako Errege Seminarioa Espainiar estatuaren eskuetan dago eta Bergarako Udala aspalditik ari da eraikina eskuratu nahian. Oraingoz ez da hitzarmena gauzatu, "idatziz, baina laster, pare bat hilabetetan, gau-



Seminarioko eliza Bergarako orfeoiak erabili izan du *Seuseen mundua* musikala entseatzeko.

M.DEGRACIAS

zatu da", azaldu digu Gallastegik. "Kultura erabilerarako izanez gero, baimena eman ziguten azterketa teknikoa egiteko, eta horrela egin genuen. Inazio Aspiazuk, Xabier Arregik, Jabier Sabadie eta Xabier Aranburuk proiektua idatziko dute, eraikinarekin elizan auditorioa egiteko".

Proiektua idatzi barik dagoen arren, azterketa teknikoak aurreikusten duenez elizako alda-

reko erretaula albo batera mugituko litzateke eta horrela horma atzerago botaz, eserlekuak gehitzeko aukera izango da. "Erretaula eta absidea ere berritu egingo dira", azaldu digu Bergarako alkateak.

BITARTEAN ZER?

Victoriano Gallastegik argi dauka: "Zinema aktibitate ekonomiko pribatua da. Novedades zine-

ma aretoak hiru hilero 2.500 lagun hartzen zituen; errentagarri izateko hilero joan beharko litzateke jende kopuru hori zinemara. Ekimen pribatu lege mantentzea zaila zela ikusi zen eta horregatik ekin genion erabilera askotariko areto baten proiektuari. Zinemaren aldeko sinatzaile guztiak zinemara joan izan balira, Novedades zabalik legoke orain".

Herrian zinema izateko aukerak aztertzen jarraitzen dute

"Oso zorrotza izan zen gurekin hizketan egon zenean", adierazi zuten joan zen eguenean Zinea Orain herri mugimenduko kideetako batzuek, Bergarako alkate Victoriano Gallastegirekin izandako elkarrizketaren gainean. Alkateari galdetu nahi zioten ia herrian zinematik egoteko aukerarik ez ote duen aurreikusten, "bestelako auditorioa egiten den bitartean. Gure ustez, behin-behineko eskaintzaren bat egiteko moduan dago Udala. Izan ere, Seminarioan egitekoak diren auditorioak luze joko du eta bitartean, herrian, ez zinematik ez bestelako kultura eskaintzarik egiteko leku egoki barik jarraituko dugulako".

Batzarrean aditza eman zuten, urtarrilaren 30eko osoko bilkuran onartuko ei da Seminarioko proiektua, eta gero, lau-pabost hilabete beharko dira proiektua idatzeko. "Horren arabera ikusiko da Zabalotegiko aukera berraztertzen den", esan zuten alkatearekin elkarrizketa izan zuten bergararrak. Bergarako Kultura etxean izan zen eguenean batzar informatiboa eta hainbat herritar elkartu zen hara, alkateak esandakoa ezagutu nahian. Ez ziren batere ados geratu alkateak emandako azalpenekin eta hori dela eta, adostutako balorazioa egitekotan geratu dira, aurrera begira zer egingo duten publikoki azaldu aurretik.





AITOR INZA

Lagunak ume eta guzti hurbildu ziren Paulori oparia egiteko.

Paulo Elkorok hunkigarri egin zuen bergararrek egin zioten ongietorria

Hiru urte egin ditu preso Espainiako hiru espetxetan Paulo Elkorok Bergarako semeak. Atzo egin zioten ongietorria, herriko plazan

Marijo Deogracias

Euskal presoak etxera zioen pankartaxoa erakusten iritsi zen Paulo Elkorok bere herriko plazara. Txalo artean egin zioten ongietorria plazara elkartu zirenek. Lehenengo berbak oraindik kartzelan dirauten Bergarako zazpi presoek eta herriko bost iheslariei zuzendu zizkien. Haien senitartekoek krabelin bana oparitu zioten Paulori eta berak buel-

tan oparitu zizkien eurei "azkeneko hiru urteetan jaso ditudan lorerik ederrenak diren arren, barruan nintzen bitartean izan ditudan bisitak eta jasota ditudan eskutitzak ederragoak dira eta horregatik zuei itzuli nahi dizkizuet lore hauek". Hori esanda, senide bakoitzari lore bana eman zien Paulok eta bi gorde zituen "azkeneko urteetan dezente sufrituko zuten nire gurasoendako". Aitari eta amari eman zizkien,

txalo zaparrada beroen artean lore bana, Jose Luis Elkorori eta Maria Karmen Aiastuiri.

LAGUNEN AURRESKU ETA OPARIAK

Askatasuna, Segi, Etixerat, Karmen preso antzuolarra, Txapa Irratia eta koadrilaren opari bana jaso zituen Paulok; koadrilakoa gainera, bera herritik kanpo izan den denboran jaio diren umeekin. Omenaldiaren hasieran Paulori bezala, ekitaldira hurbildu zirenei irribarra eragin zien aureskua eskaini zioten lagunek. Hiru hilabetez entseatzan ibili ostean, plazara atera ziren hamaika aureskulariak.

Konfiantza mozioa egingo diote Arrasateko sozialistek alkateari

Asteleheneko Goienkaria

Arrasateko Udalak Caixarekin egin nahi dituen babestutako 148 etxebizitzak direla eta, zera adierazi du Paco Garcia sozialistak: "Zerrajerako orubearen berrantolamendua egiteko beharrezko botoak lortu ezean, konfiantza mozioa egingo diogu Arrasateko alkateari". Gobernu batzordea 10 kiderekin geratu da Ignacio Lakuntza alkateak Ezker Batuko hiru zinegotziak kaleratu dituenetik; hortaz, berrantolamendua adosteko behar dituen hamaika botoetatik baten faltan geratu

da gobernu batzordea. Gauzak horrela, Arrasateko alderdi sozialistak aprobetxatu egin du prentsurrekoan azaltzeko Caixakoekin hartu-emanetan aritu direla, eta haiek "gertu agertu dira konbenioa ikuspegi sozialagotik aztertzeko; hau da, alokairu epe luzeagoak izatea eta eskatzen diren gutxieneko errenten beherapena. Hortaz, alkateari Caixarekin sinatu nahi duen prozesua geratu dezala eskatuko diogu, urtarrilaren 30ean egingo den osoko bilkuran. Ez dugu berrantolamendua onartuko EBk egindako errekursoaren emaitza jakin arte".

Labur

Mugikortasun foroak mahai-ingurua egingo du bihar, Oñatin

Gaurtik eguaztenera, herriko ikastetxeetako DBHko ziklo bakoitzeko lehenengo kurtsoko ikasleekin mugikortasunaz berba egitera joango dira Rafael Kortabarria eta Ander Irazusta. Martitzenerako antolatutako mahai-inguruan hainbat lagunek hitz egingo dute, besteak beste: Ander Irazusta mugikortasun gaietan aditu eta aholkulariak, Rafael Kortabarria foroko kideak, Errenterriko ingurumen teknikari Iñaki Gabilondok, Bea Martikorena Aldundiko ordezkariak, Udaleko ordezkari batek eta Txirrinka taldeko kide batek. 19:00etan izango da, kultura etxean.

Antzuolan erreka desbideratzeko lanak otsail erdialdera hasiko dira

Antzuolako Mañarrieta kalean jarri dituzte dagoeneko langileek erabiltzeko etxolak. Izan ere, erreka desbideratzeko lanak hastear daude. Udaleko iturriek Goienari esan diotenez, otsail erdialdera hasiko dituzte lanok Moyua eraikuntza enpresakoek.

Lehendabiziko fasean, Herriko plazaren eta Kalebarrengo atzeko aldeko lanak egingo dituzte, eta uztailean edo abuztuan bukatuko dituzte lan horiek. Bigarren fase baten, berriz, bistaratu egingo dute erreka Herriko plazan -gaur egun estalita dago eremu horretan-. 2007ko martxorako amaituko dituzte guztiz lanak.

Abaroakoek jaso dituzte sariak

Monika Belastegi

Arrasateko Abaroa erretiratuen elkarterko kideek mahai-joko txapelketan jardun dute buru-belarri denboraldi batez. Txapelketa bukatu da dagoeneko, eta sariak ere jaso dituzte irabazleek, pozik asko, gainera, alboko irudian ikus daitekeenez.

Eguenean jaso zituzten opariok, elkartean egindako sari ematean. Honako hauek izan ziren irabazleak: Ventura Martín eta Jose Encaladok eroan

zuten lehenengo saria tutean eta Federico Palencia eta Maria Tarrok, berriz, bigarrena. Briska txapelketaren kasuan, Elena Egiguren eta Antonia Uribarren izan ziren txapeldunak, eta Angela Muñoz eta Ana Maria Murua txapeldunordeak. Billar lehiaketari dagokionez, Jesus Uranga izan zen txapelduna eta Roberto Mendi txapeldunordea.

Irabazleok Arrasateko mahai-joko txapelketan lehiatzeko ere sailkatu dira Abaroan irabazita.



Abaroako irabazleak oso pozik jarri ziren argazkirako aurretik eskuratutako garaikurrarekin.

IKER BARANDIARAN

DENBORALDI IREKIERA | ASTEBURUAN ZABALDU DUTE SAGARDOTEGI DENBORALDIA IBARREAN ETA URTEKO TXAKOLINA ERE EZAGUTU DUGU

Ibarreko sagardotegi sasoi ireki eta urteko txakolina dastatu dugu

Alberto Iñurrategik egin zuen lehenengo txotxa Aramaion. Arrasateko Kataide txakolina Angiozarren aurkeztu zuten atzo

Monika Belastegi

Gurean ere estreinatu dugu sagardo denboraldia; baita txakolinarena ere. Aramaioko Iturrieta sagardotegiak egunean inauguratu zuen denboraldia, eta Elosuko (Bergara) Ixaunek, berriz, zapatuan. Horrez gain, Arrasateko Javier Arregik atzo aurkeztu zuen Kataide txakolina, Angiozarko Partaitti auzoan.

Aramaioko Iturrieta sagardotegiari dagokionez, festa giroan zabaldu zuten sasoi. Gainera, Alberto Iñurrategi Aretxabaletako mendizaleak egin zuen lehenengo txotxa. Ohorezko gonbidatuarekin batera, han izan ziren hainbat herritar, trikitilariak eta baita bertsolariak ere giroa alaitzeko.

Iturrieta sagardotegiak ugazaba berria du urritik, Aitor Etxabe, hain justu, eta azaldu zigunez, ez du denborarik izan sagardorik egiteko. Hala, kanpotik ekarri du, Astigarragako Zapiaindik. Oraingoz 500 litro ekarri ditu eta haren esanetan, "oraindik apur bat berdea badago ere, gozoa da, eta kolorez iluna".

IÑURRATEGI OHOREZKO GONBIDATU

Sagardoarekin batera, berrikuntza moduan, txakolina ere ekarri du Etxabek; Iturrietako hiru kupeletako bat txakolinez beteta dago. Txotx denboraldia irekitzeko ardura izan zuen Alberto Iñurrategik, gainera, kupel horretara jo zuen lehenik eta behin: "Oso ona dago", esan zuen. "Ez naiz ni aditua sagardo eta txakolin kontuetan, aurreneko aldia da halako ekitaldi baterako deitzen nautena, baina oso ona dago. Saiatzen naiz horrelako gauzetan neurrian aritzen, izan ere, sagardotegietan hara eta hona ibiliz gero, derrigor mendira gutxiago joan behar. Gainera, asmoa dugu udaberri aldeira Indiara joateko, baina oraindik gauzak zehaztu gabe daude", azaldu zuen Iñurrategik.

Bergarako Elosu auzoko Ixaun sagardotegiari dagokionez, zapatuan zabaldu zuten denboraldia, baina ez zuten aparteko ekitaldi-



JULEN IRIONDO

Alberto Iñurrategik egin zuen lehenengo txotxa Iturrieta sagardotegian. Baina sagardoarekin hasi beharrean, txakolin kupelara hurbildu zen lehendabizi.

rik egin. Hara ere Astigarragatik ekartzen dute sagardoa.

TXAKOLIN GUTXIAGO, BAINA OSO ONA

Arrasateko Kataide Txakolina izan zen protagonista atzo Angio-

zarko Partaitti auzoan. San Bixente eguna ospatu zuten eta urtero bezala, urteko txakolina aurkeztu zuen Javier Arregi arrasatearrak. Mezaren ondoren dastatu ahal izan zuten bertaratu-tako ehunka lagunek, auzokoek

prestatutako txorizo eta tortillekin, besteak beste.

Javierrek azaldu zigunez, beste urte batzuetan baino txakolin gutxiago egin ahal izan du aurturten: "Urte sikua izan da, euri gutxi egin du eta mahats gutxiago batu dugu".

Kantitatez gutxiago izanik ere, kalitatez "oso ona" dela gehitu du, eta "oso pozik" dagoela alde horretatik. Angiozarrera lau bat kaxa eron zituen eta Arregik berak esateaz gain, dastatu zutenek ere txakolina oso ona dagoela aitortu zuten.

• KATAIDE TXAKOLINA ANGIOZARREN AURKEZTU ZUTEN URTERO BEZALA



TXAKOLIN ONA. Javier Arregik urteak daramatza urteko txakolina Angiozarren aurkeztzen: Partaitti auzoko San Bixente jaietan. "Emaztea hangoa dut-eta", esan zigun Javierrek. Gainera, jai horretarako auzotarrek prestatzen dituzte txorizoa, tortilla... eta "neuk ere zerbait eroan nahi nuen", gehitu zuen. Hala bihurtu zen egun hori Arrasateko baserrian egiten duen txakolina aurkezteko data. Aurtengo txakolinari buruz esan zigun: "kalitate onekoa da; kolorez eta usainez ondo dago, eta zaporea ona dauka".


Esandakoa

"Ez naiz ni sagardo eta txakolinean aditua. Sagardotegietan asko ibiliz gero, derrigor mendira gutxiago joan behar"

ALBERTO IÑURRATEGI | MENDIZALEA

"Kantitatez gutxiago, baina kalitatez oso txakolin ona da aurtengoa. Usain eta kolore onak ditu eta zaporea ere bai"

JAVIER ARREGI | KATAIDE TXAKOLINA



MARLJO DEGRACIAS

San Martin plazan jarri zuten kaltetuek sinadurak batzeko mahaia zapatuan.

Sinadurak batzen dihardute Zabalotegi kaleko hirigintza proiektuaren kontra

Auzotarrek informazio falta salatu dute Arau Subsidiarioek euren kaleari ekarriko lizkiekeen aldaketan harira

Monika Belastegi

Asteburuan sinadurak batzen jardun dute Bergarako Zabalotegi kaleko bizilagunek. Arau Subsidiario berrien arabera aldaketak izango ditu euren kaleak; nagusia da bi noranzkoko errepidea igaroko dela auzoaren erdialdetik. Bizilagunak ez datoz bat egingo diren lan horiekin eta informazio falta ere salatu dute: "Udalarekin aldetik dakigun gauza

bakarra da gure kalean bi noranzko izango dituen errepidea egingo dutela, eta, ondorioz, gaur egun dauden aparkaleku guztiak galdu egingo direla. Horrez gain, Arte-kalea eta Barrenkalea oinezkoendako jarriko dituztenez, Zabalotegi bihurtuko litzateke erdiguneko komunikazio ardatz nagusi eta, bide batez, Elosu auzorako eskualde-errepide zati ere bai. Horrek ondorio larriak ekarriko lizkieke auzuneari".

ARRISKUA AREAGOTU

Zabalotegikoek ez dute uste euren kalea proiektu horrek ekarriko lukeen trafiko dentsitatea bere gain hartzeko gauza denik. Bestalde, eta kontuan izanda auzoak duen jende mugimendua, "bai inguruko eskolatan dabilzan umeengatik, bai Mizpirualde egoitzan bizi direnengatik, egungo arrisku maila asko igoko litzatekeela", uste dute.

Bestalde, urtarrilaren 30ean egingo den ohiko osoko bilkuran hitza hartzeko eskaria ere egin dutela azaldu dute kaltetuek. Sinadurei dagokionez, batuko dituzte arau subsidiarioei alegazioak egiteko epeak dirauen bitartean.

Kanuto Deuna Aretxabaletan barrena ibili zen zapatuan

Seigarren urtez ospatu zuten Kanutoren jarraitzaileek haren aldeko eguna

M.B.

Ohitura bihurtuta, Kanuto Deunaren jarraitzaileek festa egin zuten zapatuan zaindariaren omenez Aretxabaletan. Azkena taberna da santuaren irudiaren gorde-

leku, eta urtean behin ateratzen dute jaia ospatzeko. Goizetik atera zuten irudia eta arratsaldean egindako kalejiraren ondoren eron zuten berriz Azkena tabernan duen aldaretxora.

Bitarte horretan, ordea, gauza asko egin zituen Kanuto Deunak, haren jarraitzaileek lagunduta.

ASKOTARIKO EKITALDIAK

Kanuto Deunaren eguna kirola egiten hasi zuten aretxabaletarrek, bolo txapelketa jokatzeko, hain justu. Txapela Robertok eron zuten.

Txikiteoaren ondoren bazkaria egin zuten pilotalekuan eta 115 lagun inguru batu ziren. Sarrerakoak, atuna tomatearekin eta kafea eta postrea jan zituzten, Kanuto Deunaren begiradapean. Bazkaria haren jarraitzaileek prestatu zuten, gainera.

Bazkaldu ondoren, Iñaki gizon-orkestraren emanaldia izan zuten eta baita Makulele eta Capoeira erakustaldiak ere Senzala taldearen eskutik. Gauean, berriz, Gaiteru's Banden kontzertua eta DJ jaia ere izan zituzten egunari amaiera emateko.



JOSETXO ARANTZABAL

115 bat lagun batu ziren bazkaltzeko Iturrigorri pilotalekuan.

Elkarlanerako hitzarmena sinatu du MUK Mexikoko unibertsitate batekin

Asteleheneko Goienkaria

Monterreyko Goi mailako Ikasketen eta Teknologiaren Institutuarekin elkarlanerako hitzarmena sinatu du Mondragon Unibertsitateak. Ikasleak eta irakasleak eta ikerlariak trukatzeko adostu dute bi ikasketaren zentroek.

Hitzarmenari esker, Mexikoko ikasleak eta irakasleak MUKa etortzeko aukera izango dute, eta hemengoak hara joan ahal izango dira. Truke horiek epe luze zein laburretarako izango dira.

Aurretik ere aritu izan dira elkarlanean bi ikastetxeak. MUKen Mendeberriko proiektuan laguntzen aritu da Monterreyko Institutua. Izan ere, Mexikokoak ere enpresa munduarekin harreman estua dauka; enpresaburu talde batek sortu zuen 40ko hamarkadan.

PRAKTIKAK MEXIKON

MUKo ikasleek Mexikoko Institutuaren praktiketarako akordioak aprobetxatu ahal izango dituzte eta hara joan ahal izango dira praktikak egitera, baita alderantziz ere.



JOSETXO ARANTZABAL

Udalaren jarrera salatu zuten egubakoitzean plataformako kideek.

"Beharra ez da benetakoa eta kaltea betirako da"

J. B.

Bai Udalatx plataformak egingandako informazio eskaerei Udalak "entzungor" egin izana salatzeko eta mendia zulatzeak dakarren "hondamendiaz" ohartzeko agerraldia egin zuen plataformak egubakoitzean plazan gerturatutako hainbat

herritarrekin batera. Proiektuaren berri eman zenetik urtebete baino gehiago igaro denean, oraindik ez dutela zulatearen gaineko informazio ofizialik jaso salatu zuten. Udalatx zulatzeak benetako beharra zalantzan ipini gura izan zuten protestarekin, "kalte itzulezina" dela adieraziz.

Albiste izango da

BERGARA | HILAREN 25ETIK 29RA

Ibarreko turismoa Fitur 2006 azokan egongo da ikusgai

Asteon irekiko ditu ateak urtero Madrilen egiten duten Fitur turismo feriak. Eguaztenean hasiko da, hain justu, eta urtarrilaren 29ra arte egongo da zabalik. Eusko Jaurlaritzak ere bere erakusleioa izango du. Lurraldeka antolatuta egongo da Jaurlaritzarena, eta Gipuzkoari dagokion gunean Debagoienak ere izango du bere lekua. Ibarreko informazio orokorra jasotzen duten era guztietako esku orri eta foiletoak egongo dira han. Horrez gain, Oñati eta Eskoriatza udalerrien informazio zehatzagoa dutenak ere izango dituzte gure ibarrari dagokion gunean.

BERGARA | DATORREN DOMEKARA ARTE

San Paulo jaiak hasiko dituzte eguaztenean Ubera auzoan

Eguaztenean, goizeko 11etako mezarekin hasiko dituzte Ubera auzotarrek San Paulo jaiak. Gero, 12:00etan, salda eta txorizoa egongo da auzokoendako. Eguenean ere meza eta salda eta txorizoa egongo dira.

Egubakoitzean bakailao jana egongo da auzoko elkartearen 21:00etan eta zapatuan, patata tortilla lehiaketa, 12:00etan. Bazkaldu eta gero, 16:00etan mus txapelketa egongo da elkartearen eta ordu bererako umeendako kukainak ere antolatu dituzte. 18:00etan, berriz, txokolate-jana egongo da hurbiltzen diren guztiendako. Jaiet amaiera domekan emango diete: 12:00etan meza nagusia egongo da eta 12:30ean salda eta txorizoa banatuko dituzte.

DEBAGOIENA | MARTITZENEAN IZANGO DA

Baserri inguruetako plastikoa batzen hasiko dira asteon

Nekazari eremuetako plastikoa batzeko zerbitzuaren egutegia kaleratu berri dute. Lehenengo batzea bihar, martitzena, egingo dute. Hurrengo batzeak izango dira: otsailak 28, martxoak 28, maiatzak 23, uztailak 18, irailak 26, azaroak 28 eta abenduak 26. Plastikoa lagatzeko lekuei dagokienez, ohiko tokietan lagatzea komeni da. Tokia aldatu nahi izanez gero, deitu 94376 25 47 zenbakira.

Batuko den plastiko mota da: siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza, belar boletan erabiltzen den plastiko beltza, berotegietan eta ortuan lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza eta berotegiko plastiko zuria. Plastikozko sokak, berriz, ez dituzte batuko. Plastikoa arratsalde ateratzea komeni da.

ARAMAIO | 18:00ETAN IZANGO DA

Aurrekontuak aztertuko dituzte eguazteneko osoko bilkuran

Eguaztenean, hilak 25, osoko bilkura egingo du udalbatzak, 18:00etan. Beste gai batzuen artean aurrekontuak jorratuko dituztela aurreratu dio alkateak Goienari; akaso, ez aurrekontu osoa, baina bai aurrerapen bat. Horrekin batera zehaztu du Hirigintzarako izan ezik, gainerako batzorde guztietarako partidak zehaztuta dituztela.

Hirigintzari dagokionez, sail horretan aurreikusitako dituzte inbertsiorik handienak. Hala, inbertsio horrek aztertzen dihardute lehentasunak zehazteko.

BERGARA | OTSAILAREN 26AN IZANGO DA EGUNA

NA herrian egin edo berritzeko txanda hartzeko epea zabalik

Udalak jakinarazi nahi die herritarrei otsailaren 26an aukera egongo dela udaletxean NA berritu edo egiteko. Horretarako txanda hartu behar dela ere ohartarazi du Udalak. Txanda hartzeko urtarilaren 23an, 24an edo 25ean Udaletxera joan beharko dira interesatuak edo 943 77 91 19 telefono zenbakira deitu, 09:00etatik 13:30era bitartean (ordua aukeratzetik ez da egongo, txandak jarraian emango dira eta).

Egun batean arretaz hartu ditzaketena baino pertsona gehiagok emango balu izena, horiei ahalik eta azkarren jakinaraziko zaie zein egun eta zein ordutan duten txanda.

Hitzorduak



YOGA IKASTAROAK ANTOLATU DITUZTE ARRASATEN ETA OÑATIN | Ikastaro guztietarako izena emateko epea zabalik dago

Zenbait yoga ikastarotan izena emateko aukera dago Arrasaten eta Oñatin.

Arrasaten, batetik, Sanatana Dharma yoga eskolak ematen ditu ikastaroak, Erquin kaleko 2. zenbakiko egoitza. Arduradunak dira Maite (635 71 06 16) eta Ana (943 78 31 26).

Bestetik, Kutxak lagundutako ikastaro bana egongo da Arrasaten-otsailaren 24an hasita, Sanatana Dharmaren egoitza- eta Oñatin-otsailaren 20an hasita, Oñatiko Yoga Elkartearen-, biak 36 ordukoak. Horietarako izena eman daiteke 902 54 00 40 telefono zenbakian.

ANTZUOLA |

• Bularreko minbiziaren gaineko hitzaldia

Donostiako Onkologia Institutuko zuzendariak, Lourdes Aritziturrik, egingo du hitzaldi hori etzi, Olanan etxean, 18:30ean.

ARAMAIO |

• Bainuetxeetara joateko eskaera epea zabalik dago

Bainuetxeetara joateko eskaera egin daiteke hil osoan. Hain zuzen, otsail eta abuztua bitartean joan gura duten pentsiodunek egin dezakete eskaera. Honako agiriak aurkeztu behar dira: NAREN fotokopia; hilean jasotzen den pentsioaren zenbateko zehatza; Gizarte Segurantzako afiliazio-zenbakia; eta medikuaren txostena. Argibide gehiago, udaletxeko bulegoetan.

ARETXABALETA |

• Sendabelarren gaineko berbaldi praktikoa

Sendabelarren inguruko berbaldi praktikoa egingo du Zorion Intxaustik eguenean, hilak 26, udaletxe zaharrean, 19:00etan, Loramendi elkarteak antolatuta.

• Langileendako ikastaroak antolatu ditu institutuak

Lanean dabilen pertsonendako ikastaroak antolatu ditu Aretxabaletako institutuak.

Guztiz diruz lagundutako ikastaroak dira. Fabrikazio elektromekaniko, metal-erakuntza, tresneria elektronikoa eta beste batzuk emango dituzte. Argibideak, institutuan (943 79 79 00).

• Aratusteetako hainbat ospakizun egingo dituzte

Aratusteak ospatuko dituzte Aretxabaletan. Hala, domekan, moztortuta irtengo dira koardilak eta herritarrak; martitzenean, hilak 28, ume eta gaztetxoek kalejirak egingo dituzte, eta gauean Txinoa erreko dute, jaiak bukatzeko.

• Eski irteerak antolatu ditu Murruxio mendi taldeak

Hasiberriendako eski irteera antolatu du Murruxio taldeak otsailaren 4 eta 5erako; bestetik, eski alpetar irteera ere antolatu dute otsailaren 18rako eta 19rako, Luzeko pistan. Bietako izenematea zabalik dago elkartearen egoitza.

ARRASATE |

• Zahar-Berriko berba taldearen irteera

Zahar-Berri proiektuko berba taldeak Txillidalekura irteera egingo du hilaren 28an, zapatua. Arbolapetan batuko dira 10:00etan. Autoz joango dira, eta botea egingo dute gasolina eta sarrerak ordaintzeko. Izena emateko, deitu AEDra, udal euskaltegira edo AEKra.

• Beldurra ipuinetan delako hitzaldia gurasoendako

Hitzaldia egingo du Juan Carlos Alonso psikologoak eguenean, hilak 26, Monterongo haur liburutegian, 18:30ean.

BERGARA |

• Bergara Aurrera plataforma eta Arau Subsidiarioak

Bergara Aurrera plataformak Arau Subsidiarioen gaineko iritzia jakinaraziko du bihar, martitzena, kultura etxean, 19:00etan. Euren emendakinen berri ere emango dute.

• Santa Ageda bezperako entseguak gaur hasten dira

Santa Ageda bezperako entseguak egingo dituzte Aranzadi ikastolakoek urtarrilaren 23 eta 30ean eta otsailaren 2an, 19:00etan, plazako eraikinean.

• Aralar taldea eta Arau Subsidiarioak

Aralar taldeak Arau Subsidiarioen gaineko batzar informatiboa egingo du eguenean, kultura etxean, 19:00etan. Plano eta irudiak erabiliko dituzte azalpenak emateko.

OÑATI |

• Oñati Bizirik taldea

aurkeztuko dute eguaztenean Oñati Bizirik taldea sortu dute herriaren garapenean herritarrei parte hartzen laguntzeko, eta etzi aurkeztuko dute taldea kultura etxean, 19:00etan.



familia

bizi-bizia

Informa zaitez!

902 11 20 25

ARIZMENDI Ikastolan familia osoarentzako zerbitzua eskaintzen dizugu, haurren eta gurasoen beharretan oinarriturik. Familiek transmititzen diguten konfiantza eta hurbiltasuna, gure poztasun handiena.

0-6 urte HAUR HEZKUNTZAKO SAIO INFORMATIBOAK:

SAN VIATOR TXIKI urtarrilak **24** 18:00

OLARTE urtarrilak **25** 18:00

SANTA TERESA urtarrilak **26** 18:00

UMEZAINZA urtarrilak **30** 18:00

* **JOSE ARANA** urtarrilak **30-31** 09:00-19:00

BASABEAZPI urtarrilak **31** 18:00

*ATE IREKIAK EGUN OSOAN

Iritziak



Isilpekoak

943 25 05 02
goienkaria@goiena.com

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

• Txakurrak lotuta eraman

“Jakin badakit, txakur jabeari gogorra egingo zaiola bere txakurra beti lotuta eramatea, baina ez da onargarria kalea zeharkatzen aritzea eta txakurrak zaunka egiten duelako jabeari adi ibil dadila esan beharra, eta honek gainera mehatxua egitea”. Horixe esaten idatzi digu Arrasatetik irakurle batek. Gutunean dioenez, “Arrasateko Udalak 2005eko martxoan onartu zuen txakurren zaintzari buruzko araudia. Han jasotzen denez, “Isumak jarriko zaizkie jendea ibili behar den tokietan uhalarekin lotuta eraman beharrean txakurrak aske eramaten dituztenei”. Ez dakit inoiz horrelakorik egin duen Arrasateko Udalak, baina komenigarria litzateke bere herritar txakur-jabeak gertuagotik zaintzea, arazo larriagoak gertatu aurretik”.

• Errepideko ispiluak ez dira ukitzen

Arrasatetik etorri zaigu hurrengo txistua ere. Kasu honetan, Udalara doan bidean dagoen autoendako ispiluari buruz da. “Etxeazpia kaleko bidegurutzeko ispilua mugituta egoten dela eta, txistua bidali nahiko nioke dagokionari, eragiten duen trabaz ohartu dadin. Etxeazpia kalea ez da oso zabala eta kamioiak aparkatuta egoten dira bertan. Horrek bidegurutzearen ikuspegi egokirik ez izatea dakar, eta ondorioz, errepidera ateratzeko auto erdia baino gehiago atera behar izaten dugu gidariok, ispilua mugituta dagoenez, bestelako aukerarik ez zaigulako geratzen. Hortaz, horrelako graziak egiten aritzen denari esango nioke, mesedez, uzteko bakean bide seinaleak. Ispiluak hor badauka bere funtzioa, oso garrantzitsua gainera. Kamioi gidariei ezin zaie ez aparkatzeko esan, hortaz, ispilua dugu gidari bakar bidegurutzean”.

Sarean harrapatuta

Badago sexu bereizketarik lanean?

Azken estatistiken arabera, emakumeek gizonetzkoek baino soldata txikiagoak dituzte; hain zuzen ere, gizonetzkoek baino %34,7 gutxiago irabazten dute. Batzuek diote lantegi askotan lan bera egiteagatik

ere gizonetzko batek gehiago irabazten duela emakumezkoek baino. Inkesta horren harira, eztabaida jarri dute *Goiena.net* webgunean: badago sexu bereizketarik lanean? Hemen erantzun batzuk.

GUREAN SOLDATA BERDINAK DITUGU

Nik ez dut lanean sexu bazterkeriarik igarri. Gure laneko soldatak (postu berdinerako noski) berdinak dira bai gizonetzko eta baita emakumezkoentzako ere. Miren / www.goiena.net

BAZTERKETARIK EZ DAGO SEXUAGATIK

Askotan gertatzen dena zera da, lanpostu beragatik soldata bera jaso arren, emakumeek izaten dituzten lanpostuak prestakuntza txikiagoak direla, edota jarduera oso lan egunak ez dituztela nahi izaten seme-alabak edo gurasoak zaintzen dituztelako.

Nik ez dut inoiz ezagutu estatistikek esaten duten tamainako bazterketarik lan merkatuan. Gehiago esango dut, ez dut ezagutu bazterketarik sexu arrazoiengatik. Etor / www.goiena.net

LAN GOGORRETARAKO NAHIAGO GIZONEZKOAK

Nik ez dut sexu bereizketarik igarri soldatetan, baina bai bestelako diskriminazioak. Batez ere, gaixotasun bat badaukazu edota emakumea bazara. Ni emakumea naiz eta lan egin nahi nuen lantegi batean. Izena eman eta ez ninduten hartu. Gero enteratu nintzen ez nindutela hartu

ustez lana oso gogorra zelako eta nahiago zutelako mutil bat lan horretarako.

Berdintasuna / www.goiena.net

EMAKUMEEK ERE EGITEN DITUZTE LAN GOGORRAK

Oraindik ere jende askok uste du lan gogorra lantegi batekoa dela eta horretarako gizonetzkoak direla egokienak. Eta oker daude. Nire lagun batek (neska da bera) haurtzaindegi batean lan egiten du, eta egunean zehar ez dakit zenbat aldiz jaso behar dituen

umeak lurretik, fardela aldatzeko, erori direlako, jaten emateko, eta umeek pisua izaten dute. Ziur nago edozein lantegitan baino pisu gehiago hartzen duela! Eta era berean susmatzen dut lantegiko lana gizonentzat dela pentsatzen duten horiek, haurtzaindegiko lana emakumeentzat dela pentsatzen dutela.

Lan gogorra / www.goiena.net

NESKEK EZ DUTE KATEAN LAN EGIN NAHI

Ez dut bereizketarik ikusten nire lantegian. Egia da katean, nik lan egiten dudun lekuan, ez dagoela apenas emakumerik, baina ez dut uste bereizketarengatik denik. Neska askok ez dute kateko lana egiterik nahi.

Mikel / www.goiena.net


GAITASUNA DA ARAZOA, EZ SEXUA

Nire ustez lan batzuetarako ez gaude guztiok prestatuta. Hau da, nik ez daukat indar askorik, beraz, ezingo nuke zortzi ordu eman pisua garraiatzen. Beste batzuek, ordea, ez daukate pazientziarik edota izaerarik jendarearen egoteko. Hau da, ez dute jendearekin komunikatzeko balio. Nire ustez sexua ez da arazoa, bai zik eta norberaren gaitasuna eta ahalmena.

Miriam / www.goiena.net

www.goiena.net

Badago sexu bereizketarik lanean? Igarri duzu horrelakorik zure lantokian?



Zure iritzia eman nahi baduzu jo www.goiena.net webgunera

Halaxe erantzun digute

Jaurlaritza eskolako liburuak doan izan daitezela aztertzen ari da. Zer ekarriko du horrek?



XABIER MENDIGUREN ELIZEGI | EDITOREA

Irakaskuntzaren doakotasunean sinesten dut eta bideak badira: liburu guztien prezioa administrazioak bere gain hartzea, borondatea eta dirua baldin badago, eta beharra dutenentzako beka sistema, bestela. Mailegua kultura osoa pobretuko lukeen *txapuza* demagokikoa iruditzen zait.



JOSUNE LIZARRALDE | LIBURU SALTZAILEA

Batetik, Euskal Herriko argitaletxei sekulako mina. Hortik dirurik atera ezean, beste arloetan inbertitzeko dirurik ez. Eta, bestetik, Euskal Herriko liburudenda asko ixtea, testu liburuei esker mantentzen direlako asko. Laguntza-txekeak ematea litzateke alternatibetako bat.



XABIER ARREGI | IKAS-MATERIAL SORTZAILEA

Ikastetxeen autonomia areagotuko da, askotan ikas-materiala erosteko baldintza ekonomikoek agintzen dute eta. Ikastetxeek hezkuntza proiektuari hobeto egokitzen zaion materiala erosteko aukera izango luke, kostu ekonomikoak gutxituta. Ikastetxeen berdintasunaren alde ere jotzen du.



TONTXU CAMPOS | HEZKUNTZA SAILBURUA

Doakotasunaren aurrean mailegua bultzatzen dugu. Denok ez gaude egoera ekonomiko berean. Maileguarena European erabiltzen den sistemarik hedatuena da. Ikasleak liburua errespetatzen eta zaintzen du eta hori ere hezkuntzaren parte dela uste dugu.

Egunkarietako harribitxiak

ZORTZI HILABETE JAN ETA EDAN GABE

Ramek 16 urte ditu, nepaldarra da eta milaka budistek erromesaldia egiten dute hura ikustera joateko eta opariak eroaten dizkiote. Zortzi hilabte daramatza geldia, enbor baten ondoan jan eta edan gabe. Bere azken helburua da sei urte ematea egoera horretan, Budak egin zuen bezala.

'El Mundo'
2006-01-22



BALDINTZAPEKO BOZAK PALESTINAN


Eguaztenean egingo dira Palestinako Legebiltzarra osatuko duten 132 kideak aukeratzeko hauteskundeak. Jerusalem okupatuko palestinarrei botoa emateko 'baimena' eman die Israelek, baina baldintzak jarrita. Askok ez ei du boza emateko asmorik, beldur direlako. 1996an egin zen lehenengo -eta azkeneko- aldiz bozketa bat Palestinan. Hamarkada bat joan da ia-ia ordutik.

Palestinako Aginte Nazionalak behin eta berriro atzeratu du hauteskundeetarako hitzordua, Israelgo Armadaren okupaziopean egonda eta lurralde palestinarretan dauden segurtasun arazoekin, bozketa egitea ezinezkoa dela esanez. Bozen atarian, ekialdeko Jerusalem ez daude oso baikor.

'Berria'
2006-01-22



Tira, tira...



Martintxo 'Berria' | 2006-1-22

Egunkarietan irakurri dugu

'Deia'

PP-K NAHI EZ ZUEN DISKURTSOA

Batasunako eledunaren diskurtsoari zerion baikortasunak, oztopoak jarrita ere prozesuak hondoa joko ez duelako konbentzienduak, eta bi mahaitan negoziazio demokratikoa egongo delako iragarpena, itsaropenari irekitako atea dira. Hain justu ere, Rajoyk eta ultraeskuindarrek nahi ez zuten mezua.

Editoriala
2006-01-22

'Gara'

ATZERAPAUZOARI, AURRERAPAUSSA

Euskal politikaren errealitatea 2002ko zigorraren ondotik bizi izan ziren krispazio uestara eroan nahi zuenak bestelako irudia aurkitu zuen atzo: atzeraurratsa baino, euskal gizartearen zati garrantzitsu batek elkarrekin egindako aurrerapausoa. BEC kanpoan ikusitakoak iragarritako jarraipena badu, Audentzia Nazionalarenak egin du.

Editoriala
2006-01-22

'Noticias de Gipuzkoa'

ERREALITATE EGOSKORRA

Errealitatea egoskorra delako Batasunak onartu behar izan zuen atzo *realpolitik*-a eta testuinguru politikoaren arabera jokatu. Zapatero eta Balza estutasunean ez jartzea erabaki zuen biltzarra bertan behera lagata eta B planarekin konformatu zen. Ertzaintza han zegoen Grande-Marlascaren aginduak betetzeko.

Editoriala
2006-01-22

'El Mundo'

BATASUNA IRABAZTEN, ESPAINIA GALTZEN

Batasunari bide eman diotenak dira Zapateroren hitzak, besteak beste, esan duenean Alderdien Legea murriztailea dela. Otegik esaten duenean gatazka luzatu nahi dutenen eta eszenatoki berria proposatzen dutenen artean pultso politikoa dagoela, agerian lagatzen du terrorismoaren kontrako legearen norabide aldaketa.

Editoriala
2006-01-22

Zorroztailea



Elkarrekin elkartzen

Milaka lagun elkartu dira BECeko atarian oztopoak gainditzeko gertu. (...) Barakaldora joan ziren eragileen artean, beraz, elkarlanerako gogoia antzematen zen. Bai hitzetan, bai elkarrekin jokatzeko moduan. BEC kanpoko zelaian jarritako 1.500 jesarlekuetako lehen lerroak bete zituzten eragileek.

'Berria' | 2006-01-22

Elena Laka

Jakina da Europako bazter honetan bizi garenek (bazterrarena noizean behin gogora ekartzea neurri profilaktikoa da zilborkeriak saihesteko) elkartzeko joera dugula, alegia, animalia elkarzaleak gara. Elkartzen gara sagardotegietan, mendira joateko, soziedadetan, enpresak sustatzeko, biribilketetan, derbiak antolatzeke, danborradak jotzeko, txikiteatzeko, herri ekimenak bideratzeko...

Euskaldun bakoitza euri tanta bat da, gainerako tantekin elkartuta horren euskalduna dugun zirimiria egiteko gertu. Eta gure agintariak, beti prestuak, ondo igarri hori. Euskaldunon elkartzeko grina aseezina gauzatu ahal izateko, horretarako, BEC erraldoi, garesti, modernoa eraiki digute bazter honetako bazter batean. Bejondeiela, erabilera ederra ema-

ten ari gatzaita-eta! Frogatuta geratu delako, herritarron elkarreztzeak, oztopoak oztopo, (eta kasu batzuetan oztopoak mendizalerik abilena uzkuetzeko modukoak izan dira) BECen, horren izen ez-euskalduna duen erreizinto berrian, arrakastatsuak direla erabat. Berdin in-BEC edo out-BEC, barruan edo kanpoan modali-tatean. Ikus bestela: Bertso Txapelketako elkarreztzeak, marka jarri duen arrakasta borobila. Ezker abertzalea eta gainerako eragileen arteko elkarreztzeak, ha-be-jartze arrakastatsua. Apal-apalik proposatzen dut beraz, alardea, Konstituzio plazako bandera igogera, derbia, politikarien sukaldelana, Legebiltzarra... BECen egin daitezela. Badaezpada BECeko izpiritua, euskaldunen berezko elkarzaletasunarekin irabiatuta bazter honetako sukaldaritzaren plater preziatuena bihurtzen ote den.

Euskaldunon elkartzeko grina aseezina gauzatzeko, horretarako, BEC erraldoi, garesti, modernoa eraiki digute"

"Apal-apalik proposatzen dut alardea, derbia, politikarien sukaldelana, Legebiltzarra... BECen egitea"

KIROLA

- Eskubaloï derbian, Ford Mugarri 26-13 nagusitu zitzaion Arrikruzti | 14
- Hurtado eta Izquierdo arrasatearrek irabazi dute Frontenis Masterra | 17



Vanessa Gimbert
Sevilla taldeko
futbol jokalaria
bergararrarekin
jardun dugu | 19

PREFERENTE MAILAKO TALDEAK

ALOÑA MENDI

4-3

PASAIA

Aloña Mendi | Elgarresta, Lopez, Elgarresta, Astola, Garai, Arregil (Maiztegi, 80. min.), Zubia (Henry, 65. min.), Barrena, Astigarraga (Arregi II, 71. mi.), Olalde eta Idigoras (Martin, 89. min.).

Pasaia | Kortajarena, Apaolaza (Altzu, 76. min.), Rodriguez (Lemus, 76. min.), Lopez, Santos (Larrea, 83. min.), Lucas, Calso, Martin, Cestero (Arrieta, 62. min.), Pikabea (Abrego, 46. min.) eta Vidal.

Golak: | 1-0 Idigoras (10. min.), 1-1 Martinez (15. min.), 1-2 Martinez (42. min.), 2-2 Garai (53. min.), 3-2 Henry (68. min.), 3-3 Lucas (79. min.), 4-3 Henry (80. min.).

Epailea | Berasategi jauna. Marrazain baten laguntza bakarrik izan zuen.

Bestelakoak | Azkoagainera jende dezente hurbildu zen.

Bikain

Henry

Bigarren zatian zelairatu zen arren, bi gol sartu zituen. Hauek, gainera, ikusgarriak izan ziren; bat eskumako hegaletik ia angelurik gabe eta bestea area kanpotik.

Kaskar

Marrazain bat falta

Atzo Azkoagainen, epailek marrazain baten laguntza besterik ez zuen izan. Bigarren laguntzailea ez zen azaldu. Hori dela eta nahiko arazo izan zituen epaileak jokoz kanpoak adierazteko.

Esandakoak

“Lehenengo zatian jaun eta jabe izan gara. Hala ere, atsedenera 1-2 galtzen iritsi gara. Horrelako gauzak ditu futbolak”.

AITOR ORUETA |
ALOÑAKO ENTRENATZAILEA

“Bigarren golean, baloia hartu eta argi ikusi dut jaurti egin behar nuela. Zorionez, ondo jo dut eta baloia sareetan sartu da”.

HENRY BAZAN |
ALOÑAKO JOKALARIA



Aloñak egun sailkapenean duen egoera lan gogorraren ondorioa da.

FUTBOLA | GOL FESTA IZAN ZEN AZKOAGAINEN

Joko ona eta golak egin zituen Aloñak atzokoan

Aloñak lau gol sartu zituen arren, gehiago sartzeko aukerak ere izan zituen. Jaso, berriz, hiru egin zituzten, guztiak akatsen ondorioz

Arantzazu Ezkibel

Gol aukera askoko partidua izan zen atzo Aloñak eta Pasaia jokatu zutena. Azken momentura arte iraun zuen urduritasunak Oñatiko zaleen artean; azkenean 4-3 irabazi zuen Aloñak eta 3 puntuak etxean geratu ziren.

Partidua hasi eta hamar minutura, Iker Olalde area barruan baloia jaurti eta atezainaren alderatzea Roberto Idigoras iritsi zitzaion. Honek ez zuen aukera alferrik galdu eta lehe-

nengo gola egin zuen. Pozak ez zuen asko iraun; izan ere, bost minutura Sergio Martinezek berdinketa lortu zuen.

ATSEDENEAN GALTZEN

Atsedenerako bost minutu falta zirela, Julen Barrenak izandako hutsa aprobetxatu zuen Pasaia-ko aurrelariak eta bigarren gola lortu zuen. Gol honek min handia eman zien Aloñako jokalariei.

Atsedenearen ostean, Aloña lehenengo zatiko intentsitate berberarekin atera zen. Horrela, 8.

minutuan Jokin Garaik, buruz, binako berdinketa lortu zuen. Aloñako jokalariek ez zuten amore eman eta aurrera jarraitu zuten garaipenaren bila. Ezkerreko hegaletik min handia eman

zuten oñatiarrek; Robertok bi aukera garbi izan zituen, baina bietan baloia ez zen ate barrura sartu.

GOL IKUSGARRIAK

Bigarren zatian zelairatu zen Henry izan zen partidua erabaki zuena. 20. minutuan, eskumako hegalean jaso zuen baloia Aloñako erdilariek. Atera begiratu eta jaurti egin zuen, ia angelurik gabe. Gol bikaina lortu zuen jokalaria boliviarrak.

Pasaitarrek partidua berdintzea lortu zuten 79. minutuan Haritz Lucasen bitartez. Aloñako jokalariek baloia zelai erditik atera eta Henryk bi aldiz pentsatu gabe area kanpotik jaurti zuen garaipenaren gola lortuz. Aloñak 44 puntu ditu eta sailkapeneko 2. postuan jarraitzen du.

Aloñak jasotako golak egindako hutsen ondorioz izan ziren

Sailkapeneko 2. postuan jarraitzen du Aloñak, Real Unionengandik puntu batera

PREFERENTE MAILAKO TALDEAK



ARTXIBOA

Atxabalpen jokatuako lehen itzuliko partiduan Mondrak 2-0 irabazi zion Zarautzi.

UDAK hilabete darama partidurik galdu gabe

BETI GAZTE

1-2

UDA

xe, bi gol egin zizkieten nafarrei. Beti Gaztekoek, ordea, behin bakarrik lortu zuten Gaizka Eri-zen atea zulatzea.

BALOIAREN JABE

Lehenengo gola lehen zatian iritsi zen eta Igor Arriagaren base-lina polita izan zen. Atsedenera joan aurretik, ordea, berdintzea lortu zuten lesakarrekin.

Garaipenaren gola bigarren zatiko 20. minutuan egin zuen Iker Oruetak. Aretxabaletakoek ondo eutsi zioten markagailuari amaierara arte.

A.G.

Asteburu honetan beste hiru puntu lortu dituzte Felix Reciorenen mutilek. Lesakako taldearen aurka jokatu zuten zapatuan eta lehen itzuliko partiduan bezala-

Mondrak ezin izan zuen Zarautzen etxean irabazi

ZARAUTZ

2-0

MONDRA

Zarautz | Ibai, Igor, Xabier, Mikel, Iñaki, Ruiz, Carlos (Alguacil, 88. min.), Javier, Aitzol (Cuyami, 87. min.), Josu (Unax, 81. min.) eta Joseba.

Mondra | Losada (Crespo, 86. min.), Zubikarai, Mercader, Marcel, Ruben, J. Garmendia (Argider, 46. min.), J. Aranbarri (Heriz, 56. min.), Aritz (Maikel, 56. min.), Lopez eta Muxi (Loiti, 63. min.).

Golak: 1-0, Carlosek faltaz (7. min.). 2-0, Aitzolek (46. min.).

Epailea: Martinez jauna. Nahiz eta erabaki guztiak zuzenak ez izan, nahiko lan ona egin zuen.

A.G.

Mondra esku hutsik itzuli zen zapatuan Zarautzik. Atxabalpekoek ez zuten kostaldekoen atea zulatzerik lortu. Zarautzarrek, aldiz, birritan bidali zuten baloia debagoiendarren sareetara.

Partiduko azken emaitzak beste gauza bat adierazten badu ere, Mondrako jokalariek ez ziren gaizki aritu futbol zelaian. Zarautzarrek baino gol aukera gehiago sortu zituzten, baina azkenaldian gertatzen zaien moduan Igor Gordobilen mutilek ez dute ate aurreko jaurtiketetan asmatzen.

Etxeko taldeak aukera gutxiago izan zituen, baina ondo aprobetxatu zituen eta bi gol sartu.

LEHEN GOLA BEREHALA

Partidua hasi eta berehala egin zuen Zarautzek lehen gola. 7. minutuan falta adierazi zuen epaileak eta horrela iritsi zen kostaldekoen lehen tantoa.

Bigarren gola atsedenetik bueltatu eta gutxira egin zuen etxeko taldeak. Minutu bakarra zeramaten jokoan bi taldeek eta partiduko bigarren gola egin zuten kostaldekoek.

Mondra ez dago bere momenturik onenean. Joko maila ona erakusten dute jokalariek, baina emaitzei dagokionez bolada txarra pasatzen ari da taldea. Azken bost partiduetan Atxabalpekoek ez dituzte lau puntu besterik lortu. Datorren astean Ordiziako taldearen aurka jokatu dute.

Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

EMAITZAK	SAILKAPENA						
	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
Real Union-Orioko	5-0						
Aloña Mendi-Pasaia	4-3						
Idiazabal-Touring	2-1						
Beti Gazte-UDA	1-2						
Mutriku-Zestoa	4-0						
Ordizia-Allerru	5-3						
Zarautz-Mondra	2-0						
Hernani-Berio	4-1						
Trintxerpe-Irun 1902	3-1						
Hondarribia-Anaitasuna	0-4						
HURRENGOAK							
Pasaia-Orioko							
Touring-Aloña Mendi							
UDA-Idiazabal							
Zestoa-Beti Gazte							
Allerru-Mutriku							
Mondra-Ordizia							
Berio-Zarautz							
Irun 1902-Hernani							
Anaitasuna-Trintxerpe							
Hondarribia-Real Union							

Lehenengo Erregionala

Bergara baloiaren jabe argia izan zen neurketa osoan

BERGARA

2-0

SEGURA

Bergara | Ander, Txomin (Salegi, 77. min.), Eldin, Iker, Loiola, Aritz (Urteaga, 67. min.), Unai, Andoni (Dovao, 54. min.), Asier, Canas (Corral, 82. min.) eta Eloy (Arana, 71. min.).

Segura | Asier, Xiker (U. Gonzalez), Ander, Kepa, Tomas (Redondo), Goza, Jon, Xabier (Erauskin), Jokin, Arozena (Sergio) eta X. Azurmendi.

Golak: 1-0, Loiola (20. min.). 2-0, Loiola (58. min.).

Larraitx Zeberio

Segurako taldeak ezer gutxi erakutsi zuen zapatuan Agorrosinen. Josu Zubiaren mutilek behin eta berriz lortu zuten arerioaren defentsa zulatzea eta gol aukera ugari sortu zituzten.

Bi gol egin zizkieten bergararrek Segurakoei. Lehenengoa 20. minutuan. David Canasek kornerra jaurti eta Oier Loiolak buruz egindakoa. Bigarren gola atsedeneraren ostean iritsi zen, 58. minutuan. Oso antzekoa izan zen, kornere bidez Canas eta Loiolaren artean egindakoa.

IGOTZEA HELBURU

“Denboraldi hasierako gure helburua preferente mailara itzultzea zen eta hori dugu oraindik ere buruan”, azaldu zigun partidua ostean taldeko jokalaria David Canasek. “Ondo aritu gara gaur. Segurakoek ez dute gauza handirik egin eta gu behin eta berriz saiatu gara euren atea zulatzen”.

Jarraitzaile asko hurbildu zen zapatuan Agorrosinera. Hilabete pasatxo zeraman talde mahone-roak etxean jokatu gabe eta barrenak husteko gogoz bertaratu ziren jarraitzaile asko. Harmailetan zarata izan zen nagusi.



JOSETXO ARANTZABAL

Oier Loiolak buruz egin zituen zapatuan Bergararen bi golak.

• LEHENENGO TERRITORIALA

Derbian, Arrasatek alde handia atera zion Oñatiri

Lehen zatian zazpi puntuko aldea zabaldu zuten. 13 goleko aldearekin amaitu zuten



JOSETXO ARANTZABAL

Oñatiarrek arazoak izan zituzten Arrasatekoen eraso gelditzeko. Irudian, Kepa Isasmendiren jaurtiketa bat.

FORD MUGARRI
26-13
ARRIKRUTZ

Ford Mugarrri | Ekaitz, Asier, Jonan (4), A. Esquibel, Eneko (2), Jon (2), A. Garcia (2), Ruben (2), Iker (1), Lonbide (1), Nestor (4), Xabi (1), Kepa (4) eta Iker (3).

Arrikruz Oñatiko Kobak | Zurutza, Galarza (3), Arregi, Bernal (2), Zulueta (2), Garcia (3), Berrokal (1), Lizarralde, Ugarte eta Unai (2).

Golak bost minuturo: 0-1, 4-2, 6-4, 8-5, 10-5, 14-7. Atsedena. 17-7, 18-8, 20-10, 21-12, 24-12 eta 26-13.

Larraitz Zeberio

Seigarren saiakerara arte ez zuen golik egin Arrasateko taldeak, baina behin hasita jaurtiketa ia guztiak barrura joan ziren.

Pozik ziren Andoni Arandoren mutilak neurketa amaieran. Derbiak beti dira bereziak eta Oñatiko taldeari alde handiarekin irabazi zioten domekan.

Txantxikuarren aldagelan, aldiz, bestelako aurpegiak ziren nagusi partidu amaieran. "Ez dugu batere ondo jokatu", adierazi zigun Arrikruz Oñatiko Kobak taldeko jokalaririk Jon Ander Arregik. "13 goleko aldea oso handia da. Arrasateko taldea ondo aritu da, baina partiduko gakoa gure joko txarrean egon da. Erdi lo eman diogu hasiera neur-

ketari eta atsedenen ostean erdi etsita irten gara kantzara. Horrela ezin da!"

HASIERATIK NAGUSI

Ford Mugarrikoek partidua urduri hasi bazuten ere, laster aurreratu ziren markagailuan eta hegal bietan lan ona eginez laster lortu zuten hiruzpalau goleko aldea. Atsedenerako zazpi puntuko tar-

tea zuten alde eta bigarren zatian abantaila hori handitu besterik ez zuten egin. Ondo aritu ziren erasoan, defentsan asko hobetu dute eta Ekaitz zein Asier atezainen lana erabakigarria izan zen. "13 gol besterik ez dizkigute egin", esan zigun Ekaitzek. "Taldea osoa aritu da ondo. Partidu gogorragoa izango zela uste genuen denok".

• NESKEN GAZTE MAILA

Oñatiarrek txapelketako finalerako sailkatu dira

VERKOL ALOÑA
27-21
BERGARA

Arantzazu Ezkibel

Aloña Mendik Gipuzkoako txapelketako finalerako txartela eskuratu zuen zapatuan, Bergarari 27-21 irabazi eta gero. Bergararrak sailkapeneko 1. postuan zeuden oñatiarrek 4 puntura berdinduta. Derbian erabaki zen, hortaz, finalerako txartela.

ETXEKOAK NAGUSI

Begararrak markagailuan 0-3 aurretik hasi ziren arren, norgehiagokaren jabe etxeokak izan ziren. Partiduko lehenengo minutuetan Aloñak 4 penalti jarraian izan zituen alde.

Aukera hauek ondo aprobetxatu zituzten oñatiarrek eta atsedenera 7 goleko aldeaz iritsi ziren. Bigarren zatian, begararrak indartsu atera ziren kantzara, eta aldea zerbait murriztea lortu zuten. Hala ere, etxeokak ez ziren behera etorri; defentsan lan ona eginez partidua aurrera ateratzea lortu zuten.

Erasoan zailtasun gehiago izan zituen Aloñak, Bergararak etxeokoen zentralari defentsa gogorra egin zion-eta.

Aloñako entrenatzaileak esan digunez, txapelketako finala datorren astean jokatu dute Ereintzaren kontra. Non jokatuko den erabakitzeko dago oraindik.

• NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA

Aloñak galdu egin du azken txanpan

VERKOL ALOÑA
15-16
TECNOCASA

Verkoll Aloña | M. Guridi, M. Barrera, Goñi, Jone (5), Ainhoa U. (2), Sherezade, Miren (1), Ainhoa D. (1), Maitane, M. Garcia, Erika (4), Olatz (2), Eneritz eta Ane.

Tecnocasa | Maider, Laura (2), Lorea (2), Itziar E. (4), Itziar M., Alba (1), Aroa, Remedios, Leire (6), Laura, Sara, Susana (1) eta Itsaso.

Golak bost minuturo: 1-0, 2-1, 3-3, 3-6, 3-8, 4-8, 6-9, 8-10, 9-11, 12-11, 14-14 eta 15-16.

Larraitz Zeberio

Bizkaitarrek baino hasiera hobea eman zioten partiduari Oñatikoek, eta lehen hamar minutuetan aurretik joan ziren markagailuan.

Bilbotarrak, ordea, jokoa hobetzen joan ziren eta hiru puntutara berdindu ostean nagusitu egin ziren Zubikoan.

Francisco Benitoren neskek akatsak egiten ikusi genituen orduan. Baloi ugari galdu zituzten eta jaurtiketetan ez ziren fin ibili. Erasoa presioa jaitsi egin zuten eta bilbotarrek lau puntuko aldea zabaldu zuten.



JOSETXO ARANTZABAL

Bigarren zatian lan handia egin arren, garaipenak ihes egin zien Aloñakoei.

BIGARREN ZATIAN HOBETO

Atsedenen ostean itxura hobea eman zuen etxeok taldeak. Bukera estua izan zuen neurketak.

Pena izan zen markagailua hain ondo jaso ostean amaierarako segundo gutxiren faltan bilbotarrek garaipenaren gola egitea.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

EUSKADIKO NESKEN TXAPELKETA

Verkoll Aloña-Tecnocasa San Adrian 15-16

LEHENENGO TERRITORIALA

Ford Mugarrri-Arrikruz Oñatiko Kobak 26-13 Bergara Atsedena

BIGARREN TERRITORIALA

Cocinas Gros-Arrasate Esku Baloi 18-26

GAZTE MUTILAK

Aitxuri Jatetxea-Gatz Museoa Jakion 25-35

Tolosa Cf Eskolapioak-Aloña Mendi 30-22

Pneumax Elgoibar-Bergara 24-22

GAZTE NESKAK

Urola Premank-Arrasate E.B 29-03

Verkoll Aloña-Bergara K.E 27-21

KADETE MUTILAK

Elgoibar-Gatz Museoa Jakion 24-07

Aloña Mendi Atsedena

KADETE NESKAK

Ereintza-Verkoll Aloña Bertan behera

• BIGARREN TERRITORIALA

Eskoriatzak gainbehera izan zuen

Eskoriatzarrak ez ziren gai izan lehenengo laurdenean ateratako aldea mantentzeko. 2. zatia txarra izan zen, bai erasoan bai atzean

ESKORIATZA

33-59

DOSA SALESIANOS

Eskoriatza | Serrano (5), Laborda, Gomez (2), Caceres (2), Murillo, Usabiaga (10), Soriano, Exposito (12), Etxeberria, Arrizabalaga eta Alarcia (2).

Dosa Salesianos | Basarrate (10), Nuñez (2), Rojas (5), Campo (4), Lopez (10), Villalva, Miguel (6), Vendeque (9), Nevado (5), Alvarez eta Cantero (8).

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdena 12-5. Bigarren laurdena 21-24. Hirugarren laurdena 25-42. Laugarren laurdena 33-59.

Arantzazu Ezkibel

Joan den astean hasitako bola-dan onari ez zion jarraipenik eman Eskoriatzak zapatuan, Intxaurtxueta kiroldegian.

Javi Corbalen neskek partida ondo hasi zuten, markagailuan aurre hartuz. Irabazteko moduko norgehiagoka izango zela ematen zuen, baina Esko-

riatzako kiroldegira hurbildutakoek etxeko nesken gainbehera ikusi zuten.

LEHENENGO LAURDENA ONA

Lehenengo laurdenean, etxekoak markagailuan aurretik jarri ziren, 12-5eko partziala eginez. Eskoriatzako neskek joko ona egin zuten, batez ere defentsan. Balo asko lapurtu zituzten eta erreboteak hartzerako garaian ere argi ibili ziren. Taula azpiko jokoan trebetasun handia erakutsi zuten neskek; batez ere Yaiza Espositok (12 puntu) eta Maite Usabiagak (10 puntu).

Jokoan erakutsitako nagusitasunak markagailuan bere isla izan zuen. Bigarren laurdenaren hasieran, 18-9 aurretik ziren etxekoak. Erraz irabazteko partidua zirudien. Etxeko zaleak pozik zeuden, eskoriatzarren bigarren garaipena jarraian ikusiko zutela zirudien-eta.

Baina partidua bestelako bidea hartu zuen eta atsedenera 21-24 atzetik iritsi ziren eskoriatzarrak. Bigarren zatiko jokoak ez zuten lehenengoarekin zerikusirik izan. Oso bestelako jokoa



JOSETXO ARANTZABAL

Eskoriatza sailkapeneko azken postuan dago.

erakutsi zuten Javi Corbalen neskek, erasoan huts asko eginez eta defentsan samurtasun handia utziz aurkariari.

ATSEDENAREN OSTEAN ETXEOEN GAINBEHERA

Bigarren zatian eginiko partzialak hauek izan ziren: 4-18 eta 8-17. Guztira, bigarren zatian, 12 tanto besterik ez zituzten sartu eskoriatzarrek.

Defentsan zulo asko utzi zituzten, falta pertsonal asko egin zituzten eta ez zuten errebote bat bera ere harrapatu. Erasoan, berriz, bai saski azpiko jaurtiketak bai kanpotik jaurtitakoak huts egin zituzten.

Azkenean, beraz, Javi Corbalen neskek ez zuten garaipena lortu. Sailkapeneko azken postuan jarraitzen dute eskoriatzarrak, 18 punturekin.

Gaizki hasi dute liga oñatiarrek

ALOÑA MENDI

21-103

LOIOLA

Aloña Mendi | Lete, Casado (2), Izurra-tegi (5), Sanchez (2), Ugarte (2), Blanco (4), Urkia (3) eta Marquinez (3).

Loiola | Redondo (26), Albisua (8), Marlos (9), Telleria (5), Alonso (6), Herrero (6), Barrenetxea (2), Garcia (12), Txokarro (27) eta Fernandez.

Laurdenetako emaitzak: Lehenengo laurdena 7-34. Bigarren laurdena 9-62. Hirugarren laurdena 18-77. Laugarren laurdena 21-103.

Arantzazu Ezkibel

Aloñako mutilak aurkari apalak izan ziren Loiolako donostiarrentzat; ligako lehen jardunaldian 103 tanto jaso zituzten oñatiarrek.

Etxekoak jokalaririk gutxi-ekin hurbildu ziren Zubikoara; lesioak direla-eta azken uneko bajak izan zituzten. Aloñako entrenatzaileak adierazi digunez, Loiola aurkari gogorra izango zela bazekiten oñatiarrek. Hala ere, uste baino partidu kaxkarragoa jokatu zuten Aloñakoek eta 21 tanto egitea besterik ez zuten lortu. Kantxan ondo kokatu gabe atera ziren oñatiarrek eta Loiolakoek zulo guz-



JOSETXO ARANTZABAL

Lehenengo jardunaldia eta gero, Aloña sailkapeneko azken postuan dago.

tiak aprobetxatu zituzten baloia saskian sartzeko.

ERREBOTEAN GAIZKI

Erasoan baloia mugitzea asko kostatu zitzaion Aloñako muti-

lei. Jaurtiketa txarrak egin zituzten, bai saski azpitik eta bai kanpotik. Defentsako lana ere txarra izan zen. Zulo asko uzteaz gain, errebotea hartzerakoan txarto ibili ziren oñatiarrek.

• LEHENENGO MAILA

Faboritoari irabazita itzuli dira Bilbotik Mugarrikoak

SUMINAN

87-106

MUGARRI ALKESA

A.G.

Azken emaitzak beste gauza bat adierazten badu ere, zapatuan Zurutzarenak Bilbon jokatu zuten partidua oso berdindua izan zen. Atsedenean markagailua 42-43koa zen eta neurketa amaitzeko hiru minuturen faltan Arrasatekoen alde bost tantokoa besterik ez zen. Azken txanpan jarri zen, beraz, garaipena Arrasatekoen alde.

Partiduaren azken minutuetan falta tekniko ugari adierazi zituzten bizkaitarrei eta Mugarri Alkesakoek jaurtiketa libre ugari egiteko aukera izan zuten. Horrela zabaldu zuten Arrasatekoek 19 puntuko alde nabarmena.

GARAIPEN GARRANTZITSUA

“Urteko partidurik onenarikoa izan zen”, adierazi digu Mugarri Alkesako kapitain Jagoba Gamarrrak. “Suminan lehen sailkatua zen, multzo honetako talderik onenarikoa eta mailaz igotzeko faborito argia”. Joan den asteburuko kolpe gogorraren ostean garaipen garrantzitsua izan da honakoa, beraz, Arrasatekoendako.

Datorren astean Urdaneta taldearekin neurtuko dituzte indarrak Mugarri Alkesakoek. Apiril amaierara arte jokatu dute iguera fasea. Multzoko lehen bi sailkatuek egingo dute aurrera.

Emaitzak

MAILAZ MAILA

LEHENENGO MAILA

Suminan-Mugarri Alkesa 87-106

NESKEN BIGARREN MAILA

Eskoriatza-Dosa Salesianos 33-59

SENIOR NESKAK

Aloña Mendi-Cafes Aitona 35-59

GAZTE MUTILAK

Aloña Mendi-Loiola 21-103

Lasao Altzariak-Mugarri Alkesa 43-51

Loiola B-Araneta 29-88

GAZTE NESKAK

Carnicas San Marcial-Eskoriatza 61-20

Aloña Mendi-San Patricio 41-31

KADETE MUTILAK

Aloña Mendi-Cafes Aitona B 53-63

Goierri B-Mugarri Alkesa 42-91

KADETE NESKAK

S.T.L. Lazkao Txiki-Eskoriatza 17-23

Biurraena Astigarraga B-Bergara 21-88

Eskola kirola

LEINTZ BAILARA

"Ondo entrenatzen gaitu eta ez genuke beste batengatik aldatuko"

Leintz bailarako neska-mutikoekin izan genuen zita zapatu goizean Almenen

Oraingo honetan gaztetxoei saskibaloian jardutea tokatu zitzaien

Gurasoendako batzarra deitu dute Leintz Eskola Kirola elkartekoek biharko

Geaxi ezpeleta

Beraien entrenatzaileei buruz ahopeka hitz egin ziguten gaztetxoek zapatu goizean, Almenen beraiekin elkartu ginenean. Entrenatzaileek entzuten ez zituztela ziurtatu ondoren, lasaiago eman ziguten beraien iritzien berri. Orokorrean oso pozik daudela esan ziguten, "oso harreman ona daukagu entrenatzaileekin, oso jatorra delako". Eta gehienek beste batengatik aldatuko ez lituzketela ere onartu ziguten. Hala ere, bat edo batek esan zigun "ez digu uzten jolas egiten eta hori ez dugu atsegin". Hala ere, azken hauek ere onartu zuten entrenatzaile onak zeukatela, nahiz eta nahi duten guztia egiten utzi ez.

Ageri-agerian dago gaztetxoek oso entrenatzaile jatorrak dituztela eta haiek oso harreman ona dutela neska-mutikoekin.

Zapatu goizean Almenera hurbildu ginenean han aurkitu genituen gaztetxoak irribarretsu saskibaloian jokatzeko. Alde batetik bestera zalaparta batean entrenatzaileen agindupean. Guraso batzuk ere han zebiltzan seme-alabak animatzen, beraien haurrez guztiz harro. 10:00etan hasi eta 13:00etara arte hainbat herri eta ikastetxetako taldeek jardun zuten saskibaloian, ikusteko gauza asko eduki zuten nahi izan zuenak.

BIHAR BATZARRA LEINTZ ESKOLA KIROLAK DEITUTA

Leintz Eskola Kirola elkarteak batzarra egingo du bihar, martitzena, Arrasateko Monterron jauregian. 18:00etan hasiko da eta Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Aramaioko gurasoentzat da. 2004-05 ikasturtearen balorazioa egingo dute, eta baita ikasturte berriko aurrekontuaz jardun eta informazioa eman ere. 2005-06 ikasturteko partaidetza, egutegia, jarduerak eta erronkak ere izango dira hizpide.

Amaitzeko, 19:00etatik aurrera, Araitx Olagoi kirol psikologoak hitzaldia emango du. *Ume, zergatik ez duzu kirolik egin nahi?* izenburupean. Gaztetxo guztien gurasoei batzarrerara hurreratzeko gonbita egiten die elkarteak.



GEAXI EZPELETA

Gazteluondo 3B. Danel U., Ander, Julen, Danel O., Mikel, Iñaki, Andoni eta Julenek jokatzeko talde arrasatear honetan.



GEAXI EZPELETA

Almen 4B. Ibon, Ander N., Ander M., Markel, Unai, Naiara eta Lidek osatzen dute Eskoriatzako talde hau.



GEAXI EZPELETA

Aramaio. Ohian, Peru, Iker, Omar, Jokin, Irati, Sara eta Esteban dira talde honetako jokalaririk. Garazi, berriz, haien entrenatzailea.



GEAXI EZPELETA

Almen 3B. Iker, Unai, Jon Andoni, Zuhaitz, Joseba, Beñat eta Ibonek osatzen dute mutil talde hau.

• GAZTETXOEK HAIEN ENTRENATZAILEEZ HITZ EGIN DIGUTE



ANDONI, DANEL ETA IÑAKI |
GAZTELUONDO 3B

"Ez digunez jolas egiten uzten ez zaigu gustatzen. Gainera, nahi duguna egiten ez digu uzten eta hori ez dugu batere atsegin. Hala ere, entrenatu ongi egiten gaitu".



SARA, IRATI ETA IKER |
ARAMAIO

"Oso harreman ona daukagu entrenatzaileekin, oso jatorra delako eta ongi entrenatzen gaituelako".



IBON ETA JON |
ALMEN 3B

"Pozik gaude daukagun entrenatzaileekin. Ondo entrenatzen gaitu eta ez genuke beste batengatik aldatuko".



MIKEL |
GAZTELUONDO 3B

"Pozik nago berarekin, ez nuke aldatuko. Oso entrenatzaile ona dela uste dut".

Iruditlan



MARTIN GARAI

Aretxabaletarren mendi irteera Oketara. Hamabost bat lagun animatu ziren atzo, domeka, Saraia mendi taldeak Oketara (1.301 m) antolatutako mendi txangora. Etxaguen herri-tik (Araba) gora abiatu ziren eta ordubetean iritsi ziren gailurrera. Bidean lokatza izan zuten baina gustura ibili ziren. Argazkia Oketako gailurrean atera zuten.



JOSETXO ARANTZABAL

Frontiseko Masterraren finalak. Candido Hurtado eta Jose Izquierdo arrasatearrak nagusitu ziren atzo, domeka, Angiozarren jokaturako Mankomunitateko Frontenis Masterreko finalean. Carmelo Barcala eta Hector Sanz bikote bergararra bigarren sailkatu zen txapeladunaren aurrean 30-11 galduta.



JOSETXO ARANTZABAL

Aloñak 2-1 irabazi dio Azkoitiko Koxkari. Uste baino gehiago kostatu zitzaizen oñatiarrei partidua irabaztea. Atsedenera husnako berdinketarekin iritsi ziren. Bigarren zatian, Mikel Gorgoñonek lehenengo gola sartu zuen. Handik gutxira, azkoitiarrek berdinketa lortu zuten. Azkenik, Joseba Zabaletak 2-1eko egin zuen.



JOSETXO ARANTZABAL

Eskoriatzak 5-3 irabazi zuen. Eskoriatzak garaipen batekin amaitu du lehenengo buelta. Partidu erabakigarria zen zapatukoa, bi taldeak azken postuetan sailkatu daude-eta. Partidua, orokorrean, oso berdindua izan zen. Hala ere, Eskoriatzak bi puntuak lortu zituen Alai-nek, Aitorrek (2 gol), Enrikek eta aurkariek beraien atean sartutako golari esker.

RAFA MUNGIA | ARRASATEARRA, REALA JARRAITZEN DUEN KAZETARIA

"Realak karakterra behar du zelaian eta aulkian"

Xabier Urtzelai

Anoetan, derbia amaitu eta prentsaurrekora bidean zegoela harri-patu genuen atzo Rafa Mungia. Bost minutu eskaini zizkiqun, lanean zebilela.

Emaitza justua izan da?

Bai. Realarena izan da lehenengo zatia, eta Athleticcek agindu du bigarren zatian.

Sei goleko derbia.

Bai, bi taldeak gola egiteko gauza direla erakusten du horrek, baina arduratzeko moduko hainbat gauza ikusi ditut nik; norgehiagokako hainbat tartetan, Realak eta Athleticcek bigarren mailako bi talde ziruditen. Hasteko, Athletic zela zelairatu den lehenengo zatian: beldurtuta, konfiantza eta moral gutxi-rekin...

Eta, beste horrenbeste esan dezaket Realaren bigarren zatian gainean. Ulergaitza da emaitza aldeko duen talde bat horrela zelairatzea. Real desagertu egin da bigarren zatiko hasierako 30 minutuetan, eta horrelakorik ez gertatzeko taldeak karakter handiagoa behar du. Karakter handiagoa zelaian, eta baita aulkian ere. Alde horretatik, Realak oraingoa baino entrenatzaile askoz ere argiagoak izan ditu, gertaerak aurreikusi egiten zituztenak. Amorrortuk gauzak gertatzerakoan hartzen ditu erabakiak, horietako asko ulergaitzak.

Gaitza da derbiko aurrelari onena aukeratzea?

Bikote bat aukeratuko nuke, Skoubok eta Adurizek osatuko luketena. Skoubok erakutsi du



ASTELEHENKO GOIENKARIA

ETBrako egiten du lan kazetari arrasatearrak.

fitxaketa berriek ez dutela taldera moldatzeko denbora behar. Joan zen astean 30 minututan erakutsi zuen jokalarik interesgarria dela, eta gaur bete ditu aurreikuspen guztiak; jokalarik hori da, egun, Realeko albiste on bakarra.

Eta Aduriz ere oso ondo. Gipuzkoarra izanda, Realarendako kolpe gogorra izango litzateke Athleticcek fitxatzea.

Prentsaurrekoan bi entrenatzaileek zer esango duten aurreratzetik?

Amorrorturen adierazpenen gainean ez dut gauza handirik espero; azaldu egin beharko luke taldea bigarren zatian zergatik desagertu den. Eta, Clemente ezagututa, apustua ondo atera zaiola esango du, harro, jokalarik gazteak zelairatu dituela eta asmatu egin duela esanez.

"Amorrorturen adierazpenen gainean ezer gutxi espero dut"

Harmailatik

Derbi eroan, Realak ukituta



Xabier Urtzelai


Elektrikoa. Horrelakoa izan zen atzoko derbia. Athleticcek argindar barik hasi zuen norgehiagokara, eta Realari atsedendian agortu zitzaizkion fusibleak. Derbiaren gainean, Rafa Mungiak esan duenetik gutxi dago gehitzeko: astean zehar Amorrorturen lana ezbaian egon bada, atzoko partidua ez duela bere alde egingo; Skouborekin, zaleek ez dutela Kovacevic horrenbeste faltan botako; eta partiduan zehar purrustada handienetako Ansotegi gazteak bota zuela, Aduriz atezain txuridinararen aurrean bakarrik geratu zenean. Alebina uluka.

Riesgo. Sei gol tarteko, aurrelariaren lana azpimarratu beharrean Realeko atezainak egindako lana azpimarratuko dut. Jasotako goletan ezer gutxi egiteko aukerekin, ikustekoa da zelako erreflexuak dituen. Eta

beldurrik ez, daukanarekin atera zen 44. minutuan Athleticen erasoko jokaldian. Beste behin, Realeko onenatarikoa.


Alaves. Horren gainean berba egin ez badugu ere, Rafa Mungiak datorren astean Alavesek eta Realak jokatu duen derbia ere izan zuen berbagai. Ondoko erretratuan dagoenak makinatxo bat arratsalde igaro ditu Mendizorrotzan, eta badaki derbi hori ez dela nolanhikoa izango: "Ez dute talde ona osatzen, baina maila oso oneko jokalaririk dituzte. Alavesek oraindik ez du etxean irabazi, baina horrek ez du beti iraungo. Eta, Mallorcaren kontra jokatu du gero Realak. Ustez, egutegi ona ei dator Realarendako, baina zer da hori, zehazki?"

Cifuk. Julen Gerrerok amorratuta eman zion ostikoan *Etxebe*-k egiten duen antzerkia egingo balu...



Morten Skoubo

Ondo entrenatzen duenak ondo jokatzen ei du. Realeko aurrelariak sekulako entrenamendua egin zuen zapatuan, eta atzo jarraitu zuen erakustaldiarekin.



Dauden Ibañez

Osasuna Vila-realaren kontra ondo aurreratuta, Guayre lurrera erori zen bakoitzean penaltia adierazi zuen epaileak. Euretako batean, area barruko falta bai, baina ez penaltia.

Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

EMAITZAK

R. Madril-Cadiz	3-1
Zaragoza-Athletico	0-2
Bartzelona-Alaves	2-0
Betis-Valentzia	0-2
Deportivo-Mallorca	2-2
Getafe-Espanyol	5-0
Malaga-Celta	0-2
Reala-Athletic	3-3
Racing-Sevilla	2-3
Vila-real-Osasuna	2-1

HURRENGOAK

Sevilla-Vila-real
Osasuna-Betis
Valentzia-Zaragoza
Athletico-Deportivo
Mallorca-Bartzelona
Alaves-Reala
Athletic-Getafe
Espanyol-Malaga
Celta-R. Madril
Cadiz-Racing

SAILKAPENA


	Puntuak	J	I	G	B	GA	GK
1. Bartzelona	49	20	15	1	4	49	16
2. Valentzia	39	20	11	3	6	30	17
3. Osasuna	39	20	12	5	3	27	21
4. Real Madril	36	20	11	6	3	36	22
5. Vila-real	34	20	9	4	7	27	18
6. Deportivo	33	20	9	5	6	28	21
7. Celta	33	20	10	7	3	22	22
8. Sevilla	32	20	9	6	5	25	20
9. Getafe	28	20	8	8	4	29	25
10. Zaragoza	27	20	6	5	9	25	25
11. Atletico	23	20	5	7	8	20	20
12. Racing Club	23	20	5	7	8	18	24
13. Reala	22	20	6	10	4	29	39
14. Espanyol	21	20	5	9	6	17	28
15. Cadiz	20	20	5	10	5	15	24
16. Betis	20	20	4	9	7	15	27
17. Mallorca	18	20	4	10	6	20	34
18. Malaga	17	20	4	11	5	23	30
19. Athletic	16	20	3	10	7	23	30
20. Alaves	15	20	3	11	6	16	31



KINIELA

1. Vila-real-Osasuna	1
2. Betis-Valentzia	2
3. Zaragoza-Athletico	2
4. Deportivo-Mallorca	X
5. Bartzelona-Alaves	1
6. Getafe-Espanyol	1
7. Malaga-Celta	2
8. R.Madril-Cadiz	1
9. Racing-Sevilla	2
10. Elche-Valladolid	2
11. Murcia-Sporting	1
12. Albacete-Tenerife	1
13. Recreativo-Hercules	1
14. Almeria-Castellon	1
15. Reala-Athletic	X

Euskal taldeen asteko hamaikakoa



Sevilla taldeko jokalaria beteranoenetakoa da Vanessa Gimbert. Urte asko darama Andaluzian, baina bergararra da. 25 urterekin 48 aldiz izan da internazionala.

Futboletik bizi da, emakumezko gutxik lortzen dute erronka hau. Andaluziako selekzioarekin zegoen gure deia jaso zuenean. Espainiakoarekin ere badihardu.

VANESSA GIMBERT | SEVILLA TALDEKO FUTBOL JOKALARI BERGARARRA

“Askok gustatzen zait futbola eta aukera dudan bitartean jarraituko dut”

Larraitz Zeberio

Txikitatik izan zara futbolzalea. Zelan doaz gauzak aurtengo denboraldian?

Ligan oso ondo gabiltza. Une honetan bigarren sailkatuta gaude puntu bakarrera, eta guretako oso garrantzitsua da liga ondo amaitzea. Badakigu zaila izango dela talde oso indartsuak daudelako, baina saiatu beharra dago.

Andaluziako selekzioarekin ere badihardut eta ahalik eta urrutien iristea gustatuko litzaidake.

Azkenik, Espainiako selekzioaren deia jasotzen jarraitzea garrantzitsua litzateke niretzat. Mundialerako sailkapen txapelketa batean gaude eta hiru partidurik gelditzen zaizkigu. Hurrengo neurketa martxo amaieran jokatuko dugu.

Sevilla bigarren sailkatuta dago Emakumezkoen Ligan. Zer moduz doakizue denboraldia?

Taldean giro oso ona dugu eta horrek asko egiten du. Nire ustez horregatik gaude hain ondo sailkatuta.

Bartzelonako Espanyol taldeko neskek daude lehenengo postuan. Faboritoak dira?

Talde oso ona da, baina puntu bakarrera gaude eta dena da posible. Oraindik jokatuko dugu euren aurkako neurketa Bartzelonan, beraz, nolabait gure eskutan dago. Gauzak ondo egiten baditugu, agian, liga amaieran izango dugu zer ospatu.

Andaluzian bizi zara aspaldian baina gure ingurura jokatzerarekin etortzen zarenean berezia izango da, ezta? Familiakoak ikusi...

Beti da berezia Iruñean edo Bilbon jokatzea. Etxekoak ikusten ditut eta pozgarria da hori beti. Iaz Burgosera ere joaten ginen, baina Burgos mailaz jaitxi egin zen eta, tamalez, aukera bat gutxiago dut orain. (Barre). Beste giro bat da. Aurten agian ez hainbeste, baina iaz Lezama jende asko joaten zen Emakumezkoen Ligako partidurak ikustera. Ez da ohikoa eta guretzat polita da jende askoren aurrean jokatzea.

Honezkerok eskarmentu handiko erdilaria eginda egongo zara.

Urteak dira kirol honetan nabilena eta asko ikasten da. Bazuetan irabazi egiten duzu, beste bazuetan berriz galdu...

Zuretzat zerk du garrantzi handiagoa, nazioarteko txapelketak, liga erregularrak...?



LOLI GIMBERT

Vanessa Sevilla taldeko eta Andaluzia eta Espainiako selekzioetako jokalaria da.

“Ligan oso ondo gabiltza. Bigarren sailkatuta gaude, liderrarengandik puntu bakarrera. Edozer gauza gerta daiteke”

“Espainiako selekzioarekin Mundialerako txartela lortu nahi dugu. Hiru partidurik gelditzen zaizkigu”

“Futboletik bizi naiz, baina kontuak atera behar izaten ditut hilabete amaierara iristeko”

Dado jokoan ere ez zait galteza gustatzen niri. Futbolearen nabileran berdin zait zein kamisetarekin daramadan soinean. Beti ateratzen naiz irabaztera.

Ezberdintasun handiak daude Espainiako emakumezkoen selekzioaren eta gainerako selekzioen artean?

Ezberdintasun handiak daude. Suedia, Danimarka... herrialde horietan askoz ere neska gehiago dabil futbolearen eta oso txikitandik hasteko aukera dute gainera. Hori nabaritu egiten da gero nagusien mailan. Eskarmentu gehiago dute, indar gehiago ere bai. Egia da gure atzetik dauden herrialdeak ere badirela, baina aurretik daudenak ere asko dira.

Gutxi zarete futboletik bizi zareten emakumeak. Meritua da.

Futboletik bizi naiz, baina mutilek ez bezala hilabete amaierara nola iritsi kontuak ateratzen ibili beharra izaten dut.

Mutulen mailara iristea oso zaila ikusten dut. Mutilek estadioak betetzen dituzte eta horrek irabazi handiak sortzen ditu. Nahiko nuke nik!

• IGERIKETA



JOSETXO ARANTZABAL

80 NESKA-MUTIKO IBILI ZIREN IGERIAN

Bergara, Oñati, Azpeitia, Azkoitia, Legazpi eta Eibartik etorritako neska-mutilek parte hartu zuten Musakolako igerilekuan jokatutako Gipuzkoako ligako 3. jardunaldian. Igerilariak bi proba egin zituzten: 200 metro tximeleta eta 100 metro bularra. Amaia Andueza Bergarako entrenatzaileak adierazi digunez, ibarreko igerilari gazteek maila oso ona erakutsi zuten Musakolan.

• XAKEA



JOSETXO ARANTZABAL

ARRASATEKO XAKE TALDEAK BERDINDU EGIN ZUEN

Euskal ligako 2. jardunaldian, Arrasateko xake taldeak Zarauzkoarekin 2-2 berdindu zuen. Arrasatekoen aldetik Luis Ortega, Txema Hernando, Isidro Ruiz eta Roberto Billarrek jokatu zuten. Luisek irabazi egin zuen bere partida, Txema eta Isidro berdindu egin zuten eta Robertok azkeneko partida galdu zuen. Arrasatekoak ligako 3. postuan daude Sestao eta Hoberenaren atzetik.

• JUDO



JOSETXO ARANTZABAL

GIPUZKOAKO TXAPELKETA ARRASATEN

Arrasaten jokatutako Gipuzkoako txapelketan ez zen ibarreko judokarik izan. Gazte mailan, Ane Perez usurbildarra izan zen nagusi 78 kiloko sailean. Mutiletan, berriz, Ibai Berasaluzek irabazi zuen 100 kiloko sailean. Alebinek lehen proba jokatu zuten domekan; 2. probaren ostean jakingo da nortzuk diren irabazleak.

KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

- Antzuolako txistulariak eta abesbatza eta Bergarako metal boskotea batera aritu ziren atzo | 22
- Oñatin egingo dute aurten Mundumira jaia, maiatz bukaeran | 22

Iban Rodriguez musikariarekin jardun genuen egubakoitzean Jai Zale tabernan | 26

BARON ROJO TALDEA



JOSETXO ARANTZABAL

Duda barik, 1982. urtean Deep Purple taldeko abeslariaren estudioetan grabatutako *Volumen Brutal* diskoko abestiak izan ziren jaun eta jabe kontzertuan.

BARON ROJO | DISKO OSPETSUENEN ERREPASO OSOA EGIN ZUTEN

Zaleek laudorio pankarta eta guzti hartu zuten Baron Rojo taldea

Egubakoitzean lepo bete zen 3.60 aretoa Baron Rojo taldea ikusteko. Ez da ibarrera etorri diren lehenengo aldia, baina zale sutsuak dituzte, adin guztietakoak gainera. Eta ez zieten hutsik egin

Iker Vicente

Aretoko ateak ireki eta jendez gainezka zegoela ikusi ahal izan genuen. Jende gazte asko zegoen, baina beterano trebatu askoren presentzia ere nabari zen. 23:15 inguruan hasi zen kontzertua eta izugarritzko txalo zaparrada jasota eszenaratu ziren musikariak. Gazteez osatutako fan club batek pankarta eta guzti eroan zuen emanaldira.

Baxu-jotzaile eta abeslari ere aritzen zen *Sherpa*-k taldea utzi zuenean, Carlos de Castro gitarrari-jotzaileak hartu zuen bere gain lan hori, eta ondo baino hobeto moldatzen dela ikusi ahal izan genuen. *Larga vida al Rock and Roll* hasierako diskoko abes-

tiekin hasi ziren arren, disko ospetsuen errepaso osoa egin zuten. Duda barik, 1982. urtean Deep Purple taldeko abeslariaren estudioetan grabatutako *Volumen Brutal* diskoko abestiak izan ziren jaun eta jabe egubakoitz gauean. Entzuleek gogoz hartu zituzten. Esan beharra dago, disko horrekin Estatuan 150.000 kopia baino gehiago saldu zituztela eta beste milaka munduan barrena (Japonia barne). Ingalaterrako zerrendetan lehendabiziko postua lortzeaz gain, Iron Maidenekin jotzeko aukera izan zuten, eta mundu mailako birak egiteko ere bai.

Gaueko momentu hunkigarriena *Siempre estais allí* balada ezagunarekin eta egindako zen-

bait bertsiorekin etorri zen. *Set list*-arekin jarraitu zuten gaueko 1:40 arte. Momentu hartan kamerinoetara erretiratu ziren, baina 3.60 aretora hurbildutako jende-

aren rock gogoak ez ziren baretu eta "beste bat" luze baten ondoren, beraien kontzertuak bukatzeko erabiltzen duten *Hijos de Cain* abestiarekin agurtu zuten Arrasate.

OHORE BAT

Arrasatear askoren esanen ordezkari egiten naiz esaten dudanean Baron Rojo bezalako talde bat gure herrian bertan ikusi ahal izatea ohore bat dela. Are gehiago, egubakoitzean eskaintako kontzertu izugarri eta bikainaren ostean.

Bestalde, ez nuke artikulua hau bukatu nahi 3.60 aretoko kudeatzaileei eskerrak eman barik eta ibilbide horrekin jarrai dezaten animatu barik.

Bizitza luzea Baroiari!

Une hunkigarriena izan zen 'Siempre estais allí' balada jo zutenean

Ohi bezala, 'Hijos de Cain' abestiarekin bukatu zuten emanaldia

BARON ROJO TALDEA

CARLOS DE CASTRO | ABESLARIA ETA GITARRA-JOTZAILEA

“Ez dugu nahi izaten zaleek gugandik irudi hotz edo hantustetsurik hartzerik, gertukoak gara”

Jon Berezibar

Hamarkada bi bizkarrean eta oraindik Baroiari hegala ebakitzerik ez da egon. Gorriak, hala ere, ikusi zituzten joan zen hamarkadako krisian, baina une latzak igarota, berriz ere errepidean daude madrildar hauek. Carlos, bere anaia Armandorekin, urte horien guztien lekuko izan da.

Abesti berririk grabatu barik makina bat urte daramazue dagoeneko, nahiz eta zuzeneko pila bat egin duzun, zer dela-eta?

Diskorik kaleratzeko urte bi bakarrik daramatzagu, baina bertsio-lana izan zen hura, *Perversiones* delakoa. Ordurako hanka bat diskoetxetik kanpo geneukan eta nahaste handia iruditu zitzaigun grabaketa lanetan murgiltzea. Ziur ez genekien konpainiak diskoa babestu eta promozionatuko zuen eta erabaki genuen disko hori kaleratu eta zuzenekoekin segitzea.

Hala ere, badaukazue material berririk grabatzeko prest?

Hasierako etapa horretan gaude oraindik, abesti berriak landu eta perfektzionatzen gabiltza, asko dago borobiltzeko: melodiak,

letrak...baina badaukagu zerbait eta disko berria badoa itxura hartzen, ez da hor zehar dabilen nebulosa bat; forma badabil hartzen denborarekin.

Estudioan gutxi, baina zuzenekoetan ez zarete geratu ere egin. Sasoi betean jarraitzen duzue?

Oso une gozoa bizi dugu, baina bestela ere ezin gara kexatu. Beti izan dugu kontzertuak egiteko aukera, eta gainera, bateria-jotzaile aldaketak taldea bera biziberritu du, soinu enpastatuago eta rockeroagoarekin. Ondo gaude eta kontzertuetarako dei asko jasotzen ditugu. Zaleak gustura ikusten ditugu, gainera.

Kontzertu asko eta luzeak egiten dituzue, gainera.

Hainbeste urte eta diskorekin abesti asko daude jo gura ditugunak, eta horregatik egin ohi ditugu emanaldi luzeak; taldearen etapa ezberdinak erakustea nahi izaten dugu zuzenekoetan. Hala ere, ez da gure asmoa jendea berealdiko egurra eman eta aspertzea. Ez dugu kupoa bete eta kito egin gura eta emanaldi bakoitza ezberdina da. Izan ere, dena emateko prest igotzen gara oholtza gainera.

Hainbeste urte jotzen, jende gazte askorekin ere egingo duzue topo kontzertuetan, ezta?



JOSETXO ARANTZABAL

Pozik ibili zen Armando 3.60en zapatuan.

Bai, eta eskerrak hala den. Aretoak hasieratik ezagutzen gaituen jendearekin bakarrik bete beharko bagenitu inork ere ez gintuzke kontratatuko, oso lagun gutxi etorriko lirake. Zorionez, lehengusu bat edo lagun nagusiago bat tarteko, jendeak gure musikarekin konektatzen du eta poliki-poliki zaletzen dira. Jakina, gaz-

te-jende multzo handi horregatik ez balitz gure kontzertuak *en petit comité* lirake. Harremanak zaintzen saiatzen gara gainera. Ez dugu nahi zaleak gugandik irudi hotz edo hantustetsurik hartzerik, ez gara bolizko dorre baten bizi, gogorlan egiten duen taldea gara. Baina egia da kontzertuak eta gero zaleekin egon eta eurekin hitz egit-

ko geratu ohi garela. Oso polita da bukaeran sortzen den giro hori. **Badirudi bigarren susperraldi bat-edo bizi duzuela. Noiz arte jarraitzeko asmoa daukazue?**

Gure proiektua mugagabea da, gure entzuleek erretiratuko gaituzte. Kontzertuetara jende gutxiago joaten denean eta guztia ahultzen hasten denean, orduan iritsiko da agur esateko garaia. Baina esperientziak diosku banda oso beterranoek ere aurrera egiten dutela. Gorputzak eusten badigu eta interesa pizten badugu, aurrera!

Interes hori, antza, Sherpa zuen hasieretako taldekide ohiak ere agertu du, hainbat elkarrizketatan itzultzeko nahia edo adierazi du-eta. Badago aukerarik?

Kontua da, Sherpak gu utzi gintuenean esperotako arrakasta izan balu bestelakoak izango lirakeela gauzak orain, baina ez dira bere itxaropenak bete. Ondo iritziko nioke hori bera orain dela hamar hamabost urte esango izan balu. Orduan Baron Rojo basamortutik bere bidaia egiten ari zen, 90eko hamarkada amaiera latza izan zen benetan eta orduan behin baino gehiagotan guk geuk eskatu genion itzultzeko. Serio hartu barik egin zion uko eskaintzari. Orain egoeraz aprobetxatzea gura duela susmatzen dut, uneotan funtzionatzen dugu-eta, urtean hogeita hamar emanaldi baino gehiagorekin eta etengabe atzerrian jotzen. Loteria irabaztera denok apuntatzen gara! Hala ere, ez gaude etsaituta eta agian etorkizun baten azken bira bat egitea egokitzen bada ez dugu ukatzen gonbidatu moduan hartuko ez genukeenik, hasierako formazioko partaide moduan. Izan ere, ez dago ezelako ezinikusirik, inondik ere.

“Une latzak izan ziren 90eko hamarkadakoak, baina orain berriz funtzionatzen duen taldea gara”

“Interesatua iruditzen zait Xerpak orain itzuli nahi izatea. Loteria irabaztera denok apuntatzen gara!”

• JARRAITZAILEAK ETA MUSIKARIAK, DENAK GUSTURA



ESZENATOKIAN GUSTORA. Hogei urteko ibilbide luzean milaka oholtza zapaldu dituzte *baroiak*, eta Arrasatekoa “mila eta batgarrena” izan bazen ere, pozik ikusten ziren bai Carlos zein lagunak 3.60en. Arrasaten behin bakarrik jo dute, baina 80ko hamarkadan izan zen hori. Hala ere, ibarrean sarri izan ditugu madrildarrak.



BIGAREN SUSPERRALDIA. Talde gutxi bat ohi dute belaunaldi bat baino gehiago areto berean. Horieta bat da Baron Rojo. Zale gazteenek lehen ilarak bete zituzten egubakoitzean eta zaharrenek bezain ongi zekizkiten abestiak. Rockaren joan-etorrien lekuko izan dira musikari hauek eta denborak arrazoia eman die.



BIZIBERRITUTA. Hasierako formaziotik Carlos eta Armando De Castro anaiak bakarrik geratzen dira. Azkenaldiko fitxaketa José Martos bateria-jotzaile bikaina izan da. Hark eta Angel Arias baxu-jotzaileak distira eman diete abestiei, eta taldeak soinu indartsuagoa dauka orain. Aldaketek, ageri denez, mesede egin diote Baron Rojori.



JON BEREZIBAR

Salbador Olabarriak eta Juan Tomas Zabalok (irudian) bakarlari lana egin zuten emanaldian.

Beste urte batez bete egin zuten aretoa txistulariek

Antzuolako txistulari taldeak urteroko saioa egin zuen atzo, Antzuolako abesbatzak eta Bergarako metal boskoteak lagunduta

Non. Osoko bilkuren aretoan.
Zenbat jende. Aretoa beteta zegoen.
Iraupena. Ordubate inguru.

Monika Belastegi

Urteroko zita bihurtu da eta herri-
tarrek ez zuten hutsik egin. Uda-
letxe osoko bilkuren aretoa
lepo bete zen herriko txistulari
taldea eta abesbatza entzuteko.
Jarritako aulkiak ez ziren nahi-

koa izan; zutik ere geratu zen jen-
dea herriko musikariak entzu-
teko.

Mezaren ostean, 12:30ean, hasi zen emanaldia eta bi atal izan zituen, biak ala biak, Bittor Arbulu antzuolarraren zuzendaritzapean. Emanaldiaren lehenengo zatian, txistu taldeak eta Bergarako haize boskoteak hartu zuten parte; bigarrenan, Antzuolako abesbatza gehitu zitzaion. Aipatzekoa da, bestalde, Enrique Txurruka Bergarako bateria-jotzailearen laguntza ere izan zutela.

ENTZULEAK ERE KANTARI

Txistu taldeak eta haize boskoteak lau pieza egin zituzten: *Hau dek hau* izan zen lehenengoa eta *Gutxi baina nerea*, *Kadrila eta mazurka* obrek jarraitu zioten, eta *Fandangilloa eta porrusalda* alaiarekin bukatu zuten.

Bigarren zatian ere euskal folklore eta tradizioari lotutako pieza sorta egin zuten abesbatzarekin lagunduta. Aipatzekoa da *San Sebastian* obra jotzean abesbatzako kide Salvador Olabarriak egindako bakarkako lana. Baita Benito Lertxundiren *Baldorba* ezagunean Juan Tomas Zabalok egindakoa ere. Gainera, entzuleak lagun izan zituen; izan ere, esku-orrien laguntzarekin gehienek abestu zuten.

Ramones eta Queens of the Stone Age-en ondorengoak elkarrekin

Elorriotik stonerra eta Gasteiztik punka; gustu askotarako eskaintza izan zen Oñatiko gaztelekuan zapatu gauean

J. B.


Queens of the Stone Age talde ezagunaren bertsioekin eta Obligaciones gasteiztarren punk gogorrarekin osatu zuten Oñatiko gaztelekuan zapatuko gaubela.

Stoner doinuekin hasi ziren Elorriokoak QOTSARI omen eginez. Banda estatubatuarrari omenaldia egin zion Dirties taldetik sortutako laukoteak. Omen taldeek ere badute xarma eta polita izan zen *erreginei* egindako gurtza txikitxo.

PUNKAREN ALDE SEXUALA

Gasteiztik etorri ziren gaueko bigarrenak, eurek adierazten duten moduan, "rockaren alder-

di sexualki arriskutsuena" ekarri. Lau disko kalean izanda eta ehunka zuzeneko bizkar gainean, ondoen eta irekien eszenatoki gainean moldatzen dira arabarrak. Punk zikin, gogor eta makarraz egin zuten emanaldia, Ramones edota, gertuago, Señor Nokoen oinordeko duin moduan. Punk planteamendu klasikoarekin eta atzean geratzen ez diren letrekin gogor ekin eta berdin amaitu zuten Oñatira egindako bisitaldia. Sexua eta eguneroko istorioak ardatz, argi daukate gasteiztarrek zertarako egiten duten musika eta hori da zuzenean erakusten dutena, ondo pasatzeko gogoia eta, derrigorrezkoa dena: egurra ematea.



JOSETXO ARANTZABAL

Queens of the Stone Age taldearen bertsioak egin zituzten elorriarrek.

Txotxongiloak bisitari Elkar Hezin

Ate irekien jardunaldia egin zuen zapatuan Oñatiko eskolak. Tartean Kixka taldeak emanaldia egin zuen

A.G.

Oñatiko Elkar Hezi ikastetxeak ate irekien jardunaldia egin zuen zapatuan. Hezkuntza proiektua aurkeztu zuten bertaratutako

guraso eta neska-mutikoen aurrean. Horrekin batera, ikastetxean barrena bisitaldia ere egin zuten eta horri guztiari amaiera emateko, Kixka txotxongilo taldeak emanaldia egin zuen herriko 2 eta 10 urte bitarteko neska-mutikoen eskolastiketan. Ez ziren gutxi hurbildu, gainera.

Txikienean, nola ez, ondo baino hobeto pasatu zuten Kixka taldeko bi pailazoan bihurrikierekin eta euren lagun txotxongiloekin. Izan ere, txantxatik txantxara ibili ziren Kixkakoak txirula jotzen, kantuan...



JOSETXO ARANTZABAL

Txantxatik txantxara ibili ziren Kixkako lagunak eta euren txotxongiloak.

ANTZERKIA | '¡AY MANOLO!' ANTZEZLANA OÑATIN

Antzezleei gaitasunik ez zitzaien falta baina testuak ez zeukan gatz nahikoa

Egubakoitzean aurkeztu zuen La tentación konpainiak '¡Ay Manolo!' antzezlanaren, drama eta umorea uztartuz

Jon Berezibar

Sarri, lan baten hanka bat herren badabil, estropezu egin ohi du obra osoak. Tamalez, hori gertatzen zaio egubakoitz gauean Oñatiko Santa Ana aretoan aurkeztu zuten antzezlanari. Kasu honetan, argumentuarengatik dabil herren '¡Ay Manolo!'; eta pena da, antzezleek ez dute eta lan batere txarra eginen. Gidoi kaxkar batek makulu lana egin behar izan zuen, eta aktoreei talenturik falta ez bazitzaien ere, ezin izan zuten Manolo herrena dantzan jartzeko moduko miraririk egin. Teresa Caloren testua asmo onekoa bada ere, ez du asmatzen moduan, eta komedia eta dramaren arteko joan-etorrietan galtzen da askotan; ez da ez batean ez bestean geratzen eta horrek argumentua oso azalekoa izatea dakar.

Bizitzaren ustekabeko gertakarien aurrean gizakiak agertzen duen berezko biluztasuna aurkeztu gura du obrak oinarrian, eta kontaketarako umorearen hautua egin du. Aukeraketa berez ez da desegokia, sarkasmoaren gaziak ondo zorna ditzake eta bizitzaren gazi-gozo-



JOSETXO ARANTZABAL

Erdipurdiko istorio batekin, aktoreek lan oso duina egin zuten.

ak. Baina gidoian txiste ugari dago eta azido gutxi. Behazun gehiagorekin, agian, agerikoa goa litzateke obrak azalatu gura duen anabasaren xarma edo Murphy-ren ironia, autorearen erreferenteak horiek balira, noski. Asmo onen itsaso baten norabiderik ez duelako galtzen da

Umorea eta drama nahastuta, erdibidean geratzen da antzezlanaren, gutxi kontaktzen du

Pena da, aktoreek lan benetan ona egin arren testua hasieratik baita ahula

antzezlanaren eta txarrena da aktoreek oso ondo defendatu zituztela euren paperak. Primerako lana egiten dutela aitortu behar da, baina oinarria falta zitzaien, itsaso horretan ez galtzeko ezinbestekoa den lema: testu on bat. Izenburuko aienearekin irten ginen asko aretotik.

Oteiza ezagutzera jende asko animatu zen Espaloira

Mireia Gabilondok 'Otehitari biraka' dantza ikuskizuna aurkeztu zuen Elgetan, joan zen egubakoitzean

Naiara Larrañaga

Ordubete eskas iraun zuen Otehitari biraka ikuskizunak. Gehiagoren gogoz geratu ginen Espaloira hurbildu ginenak. Dantza,

musika eta Oteizaren hitzak gertutik ezagutzeko aukera beldurgarri ona izan zen. Eskultore oriotarrarengana hurbiltzeko eta bera nolakoa zen ezagutzeko parada izan nuen eta asko gustatu zitzaidan. Era samurrean, ondo baino hobeto jositako lana da eta bideo muntaiari esker entzun genituen adierazpenek mezu oso potoloa zabaldu zuten Elgeta gainean. Aukeran ordubetetxo luze eskatuko nieke Tanttaka eta Kukai taldekoei, joko bikaina osatu dute eta bideoaren laguntzaz.

ELKARLANEAN


Tanttaka antzerki taldea eta Kukai dantza taldea elkarrekin ari dira Otehitari biraka ikuskizunean.

Mireia Gabilondok idatzitako gidoia oinarri hartuta Jorge Oteiza eskultorearen inguruan sortua da ikuskizuna, eta Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal, Rafa Rueda eta Mikel F. Krutzaga musikagileek sortutako doinuekin dantzan Jon Maia, Alain Maia, Eneko Gil, Ibon Huarte, Urko Mitxelena, Nerea Vesga eta Vanesa Castaño aritzen dira.



JOSETXO ARANTZABAL

Tanttakak eta Kukaik elkarrekin egiten duten bigarren lana da.



JOSETXO ARANTZABAL

Antzezlanak ikusmina eragin izan du jorrazten duen gaiarengatik eta Amaia antzokia lepo bete zen.

Eskandaluak, mesfidantza eta azpijokoa Vatikanon

'Yo Satan' antzezlanak bete egin zuen atzo iluntzean Arrasateko Amaia antzokia eta ikusleek gustuko izan zuten

Non. Arrasateko Amaia antzokian.
Zenbat jende. Aretoa beteta.
Iraupena. Ordu eta erdi inguru.

A.G.

Antonio Alamo dramaturgoaren *Nata soy* eleberraren egokitzapena da *Yo Satan*. Umore klabean egindako thrillerra da eta ikusleen barrea emanaldien une bat baino gehiagotan era-

giten duena. Halakoxea izan zen, bederen, Arrasateko Amaia antzokian batutako ikusleen erantzuna. Lepo bete zen, gainera. Izan ere, elizaren tripa barruek, eskandaluek, mesfidantzek eta azpijokoak ikusmena eragiten du.

Askotariko pertsonaia uherak ikusi zituzten ikusleek: kardinalak, exorzistak, burokratak...baita Aita Santua bera ere. Pertsonaia horiekin batera gaur egungo eliza katolikora hurbiltzen da ikuslea eta pertsonaia

horren atzean dauden aktoreen lana oso ona da. Adolfo Fernandez, Alfonso Lara, Juan Fernandez, Pako Sagarzazu dira, besteak beste antzezlana hain gustuko izatearen erantzule.

GAIK EZ ZUEN INOR ARETOTIK IRTENARAZI

Izan zitekeen lanak duen tematikak -gurean den instituziorik zaharrena- ikuslekoaren sektore bat atzera bota izana, baina ez zitzaigun hala iruditu; ez genuen Arrasateko Amaia antzokia emaldia bukatu aurretik inork laga zuenik iruditu. Gehiengoak, behintzat, gustura asko egin zuen barre. Izan ere, obra entretenigarria da, eta azken batean, fikziozkoa.

Oñatin egingo dute maiatz bukaeran Mundumira, munduko kulturen jaia

Debagoienaren irudia Euskal Herri osoan barrena zabaldu nahi dute antolatzaileek

Monika Belastegi

Maiatzaren 26an, 27an eta 28an Mundumira jaia egingo da Oñatin. Iaz egin zen lehenengoz Arrasaten, eta aurten jaia errepikatu nahi izan dute. Debagoiena hainbat lurraldetatik etorritakoen topagune bihurtu nahi dute antolatzaileek eta, aldi berean, bertako ondare historikoa, artistikoa eta naturala erakutsi.

Debagoieneko Mankomunitateko Turismo eta Kultura Sai-

lak, Euskal Herria aldizkariak eta eskualdeko hainbat eragile pribatuk antolatuko dute festa. Oraindik ez dute aurkezpen ofizialik egin, baina jaialdia presatzen hasi dira dagoeneko.

ESKAINITZA ZABALA ETA OSOA EGIN GURA DUTE

Antolatzaileek eskaintza osoa eta zabala luzatu nahi dute jarduerara honekin; eskualdeko irudia Euskal Herrian zehar zabalduz eta, aldi berean, turismo eta aisialdiko kulturala eskaintza zabalduz.

Jaialdiak batuko ditu besteak beste: mundu osoko musikak, umeendako jolasak, erakusketak eta mahai-inguruak. Ibilaldi gidatuak eta mendi irteerak ere antolatuko dituzte eta baita azokak ere, mendi eta senderismo-

aren 2. azoka eta artisautza azoka, hain justu. Bestalde, Euskal Herriko GKEen Topagune ere izango da.

**TOKI
ALAI
TABERNA**

**Karajiloetan
espezializatua**

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

Euskal rockaren bi alde berritzaile ikusi ziren Zein? eta Desorekarekin

Kepa Bilbao gidari, Zein? taldeak ahoz ahokoak iragarritako indarra egiaztatu zuen Arrasateko gaztetxean

Jon Berezibar

Euskal Herriko bi puntatetik etorrira, euskal rockaren mapa oraindik ere zabala eta berritzailea dela erakutsi zuten zapatuan Arrasateko gaztetxean Zein? bilbotarrek eta Donostialdeko Desorekakok.

Metaletik gertuago eta funky apaindurekin, Gipuzkoako talde gazteak jo zuen lehenengo. Azken urtean ez dute ipurdia geldi eduki eta kontzertura bildutako jende taldetxoak Desorekakoak metala berritzeko asmoarekin datozela ikusi ahal izan zuten. Erritmo biziak eta une lasaiak; deskarga basatietan oinarritzen da talde gaztearen soinua. Kontzertu ona egin zuten, tekniki akats gutxikoa eta planteamenduan aberatsa.

INDARRA BILBOTIK

Esperientzia gehiagorekin eta bluesera eta rockera joaz, Bilboko Zein? taldea etorri zen ostean. Orain dela ia bi urte kaleratu

zuten euren bigarren lana eta ordutik ahoz ahokoak gero eta ezagunago egin du laukote hau, eta ez txarrerako gainera. Indar handiko oneak eta blues emoziozkoak, hurrenez hurren, estiloa mugatzeaz ulertzen ez duen talde honenak. Radioheadetik hasi eta Neil Youngeraino, aipatzen dituzten eraginen zerrenda zabala da. Agian horregatik da hain berezia Zein?-ekoen musika, genero bakoitzeko onena euren alde jartzen dakitelako. Berezia da, era berean, Kepa Bilbaoren ahotsa, euskal panoraman berezietakoa. Esan bezala, jende gutxi animatu zen gaztetxera zapatuan, baina horrek ez du ezer esan gura. Are gutxiago bertan entzundakoak entzun eta gero. Bi proposamen ezberdin, Gipuzkoatik bata eta bestea Bizkaitik, baina biak ala biak euskal rockaren irekitasunaren erakusgarri. Sarri, bertako rockaz aurkakoa esan ohi da eta zapatuko taldeek iritziz aldatzeko arrazoiak eman zituzten.



JOSETXO ARANTZABAL

Interesgarria oso Zein?-ekoek egiten duten musika.

UGARTE
AROTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean
Horma armairuak
Altzariak • Leihoak • Ateak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04



Hirusta
Zatetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABAETA

Debagoiena aldatu egin da, gu ere bai



Otsailaren 3an, Goienkaria berritua.

Informazio hobe • Diseinu berria • Orri gehiago • Kolore gehiago

Goienkaria

Metal estiloan hasi zen musikan. Aihotz taldearekin egin zituen bere lehenengo emanaldiak. Gero Offset taldean aritu zen gitarra-jotzaile eta hiru urte beranduago

bakarlari legez probatzea erabaki zuen. Orduan egin zuen bere lehenengo emanaldia Jai Zale tabernan eta bi urte geroago, zapatuan, berriz ere aritu da

eszenatoki berean, Jim TNT lagunarekin batera. Lagunek *lertxundiano* samarra dela diote, berak, baina, baladak jotzeak ez duela hori esan gura adierazi digu.

IBAN RODRIGEZ | MUSIKARI BAKARLARIA

“Abantailarik ere badauka bakarrik jarduteak, holako askatasun bat ematen dizu”

Marijo Deogracias

Nolatan metal estilotik bakarlari legez aritzera?

Gitarra jotzea gustuko dut, oso. Era guztietako musika entzuten dut eta gitarrarekin ere era guztietakoak jotzea gustatzen zait; musikarekin ez naiz oso kritikoa izaten. Gainera, bakarka aritzeak ematen dizu holako askatasun bat: zerbait txarto egiten baduzu zuk erabakitzen duzu abestia berriz hasi ala jarraitu. Abantaila da bakarrik aritzea horrelakoetan.

Euskaraz abesten duzu.

Euskaraz bizi naiz eta kantak ere euskaraz idazten ditut.

Zenbat abesti dituzu?

Zortzi abesti ditut eta beste bi gehitzen ditut zuzenekoetan, horietako bat Itoizen *Lau teila-tu*. Bizitzaz aritzen naiz abestietan. Nahiko malenkoniatsuak dira, poetikoak. Tira... poesia pixka bat badaukate

Lertxundiano samarra zarela esan dit txoritxo batek.

Ez dut uste horrela denik. Nire musika lasaia dela badakit, baladak eta antzekoak egiten ditut. Baina ez dut uste horrelakorik esan daitekeenik nire musikaz.

Musika ala hitzak lehenengo?

Musika lehenengo. Gutxienetan, inspiraturik nagoenean-edo, hitzak sortzen ditut lehenengo. Nire azkeneko kanta orain dela pare bat hilabete egingo nuen.

Orain dela bi urte egin zenuen zure lehenengo zuzenekoak bakarlari moduan.

Bai, eta orduan ere Jai Zalen izan zen. Jim TNT taldekoka lagu-

na dut eta hark esan zidan ia animatuko nintzen. Baietz esan nion eta hasiera baten urduri samar aritu nintzen arren, oso gustura egin nuen kontzertu hura. Esperientzia oso polita izan zen, hasierako tentsioa hustu ostean.

Harrezkero bost bat zuzeneko egin ditut. Bergaran izan nintzen Gaztetxean eta amaieran oso ondo aritu nintzela esan zidaten. Oñatin, bota zuten gaztetxean ere, izan nintzen. Han ere jende asko egon zen zuzenekoan. Jendeari nire musika gustatzen zaiola uste dut eta horrek poztu egiten nau. Hala eta guztiz ere, ez naiz kontzertu askotan aritzen den horietakoa. Ez naiz zuzenekoak lortzen aritzen. Dena den, Jim TNT laguna dut eta elkarrekin aritzea gustatzen zait. Ordu erdixoko zuzenekoak egiten dut.

“Nire musika lasaia dela badakit, baladak eta antzekoak egiten ditut, baina ez da lertxundianoa”

“Ez naiz kontzertu askotan aritzen, baina jendeari nire musika gustatzen zaiola uste dut eta poztu egiten nau”

Hainbat taldetan aritu zara gitarra jotzen, baina zure kabuz ikasi duzu?

Arrasate Musikalen aritu nintzen pare bat urtez, baina ez naiz oso konstantea eta utzi egin nuen. Orain etxean aritzen naiz gitarrarekin; lauzpabost orduz, egunero. Asmoa ere badaukat berriz ere irakasleren batekin hasteko; norbaiten laguntza beharrezkoa dela iruditzen zait eta behar bada hasiko naiz. Gainera, gustatuko litzaidake zuzenekoetarako beste musika tresnaren baten laguntzarekin aritzea, ez dakit, flauta edo biolinaren bat sartzea. Hori ere ondo legoke.

Zenbat denbora egin zenuen beste taldeetan?

Hemezortzi urterekin hasi nintzen lagun batzuekin metal talde baten. Aihotz izena zuen eta musika nahiko gogorra egiten genuen. Gero Offset taldean aritu nintzen, hiru bat urtez. Hura ere metal taldea zen, baina ez Aihotz bezain gogorra. Ostean ekin nion bakarlari aritzeari.

Aizu, eta Gorrion nondik dator?

Nik ere sorpresa galanta hartu nuen Jai Zaleko emanaldia iragartzeko kartelean *Gorrion musik* irakurri nuenean. Eskolatik datorkit ezizena, *Gorrion*. Baina inoiz ez dut zuzenekoetarako inolako izenik eman. Beti kontzertuen antolatzaileek asmatu izan dute izenen bat. Oñatin, esaterako, *Gorrion el peligroso* jarri zidaten eta harekin ere nahiko txiste egon zen. Nahiago dut Iban deitzea, agian, Iban Rg. eta listo!

Tira, Iban, amaitu aurretik. Errugbi jokalaria, musikaria...
Denak zaletasunak dira. Musika gustuko dut eta errugbian



JOSETXO ARANTZABAL

Iban Rodriggez, arrasatearra da, Zigarrolakoa.

jokatzea ere bai. Gainera, zapatu gauetan irten beharrean, askotan domeka goizean mendira joateko aprobetxatzen dut. Orain horiek guztiak egiteko denbora badaukat, lana topatu bitartean behintzat. Hala ere, errugbian pare bat urtez gehiago arituko naiz eta

gero utzi egingo dut. Taldea ez dabil oso ondo. Talde osoa elkartuta mailako taldea daukagu, baina entrenamenduetara jende gutxi joaten da eta horrela ez dago partidu onik jokatzetik. Ez daukagu fundamentu handirik, nik behintzat ez daukat.

Jim TNT-rekin aritu zen Iban, Jai Zale tabernan

Iban Rz.-ek ekin zion Jai Zaleko emanaldiari egubakoitz gauean. Gaueko 11k pasatxo zirela entzun ziren bere gitarraren lehenengo notak. Taberna leporaino beteta zegoen eta jendeak oso gustura jarraitu zuen Zigorrolakoaren bakarkako emanaldia.


Orduerdi pasatxoko emanaldia, kanta guztiak euskaraz, eta horietako batzuetan jendeak lagunduta egin zuen kontzertua Ibanek.

Gero Jim TNTren ordua izan zen. Berak ere bakarrik ekin zion zuzenekoari. Gaztelaniaz eta ingelesez aritzen da mondragoetarra eta horietako batzuetan ere jendea lagun izan zuen. Ordu erdiko

saioaren ostean, Amaia Artzamendi inguratu zitzaion biolinarekin. Iazko maiatzetik ari dira elkarrekin zuzenekoak egiten eta ondo baino hobeto egiten dutela ere esan beharra dago. Zazpi kantu dituzte elkarrekin jotzeko eta euren bosgarren zuzenekoak zen arren, musikari bikainak direla erakutsi zuten.

Jai Zale leporaino beteta egon zen, herrian bertan Baron Rojoren kontzertua zegoen arren. Aparteko giroa jarri zuten hiru musikariek eta bi ordu pasatuta amaitutzat eman zuten kontzertua.

Orain dela bi urte ere Iban eta Jim TNT izan ziren emanaldi bera egiten. Orduan ez zen Amaia aritu.



Film laburren lehiaketa antolatu du Arrasateko Emakume Txokoak

'Emakumeak Arrasateko Historian' delako film labur sariketa deitu dute, eta oinarriak asteen kaleratuko dituzte

Leire Kortabarria

Arrasateko Emakume Txokoak hiruhilabete honetarako egitaraua aurkeztu berri du. Tartean, hitzaldiak, ikastaroak, lehiaketak... antolatu dituzte.

Hala, bi lehiaketan parte hartzeko aukera zabalik dago: bat, *Emakumeak Arrasateko Historian* delako film labur lehiaketa, aurtengo berritasuna, lehenengo aldia da-eta. Ekaina bitartean dago lanak aurkezteko aukera. Oinarriak eta informazio gehiago www.arrasate-mondragon.net webgunean duzue aste honetatik aurrera, edo 943 79 41 39 telefonora deituta. Bestetik, urtero bezala, emakumeon nazioarteko egu-

neko kartela aukeratzeko sariketa ere deitu dute. Aurtengo leloa da Zainduak izateko eskubidea eta emakumeen intsumisioa. 900 euroko saria emango diote irabazleari. Lanak Udako Emakume Sailean entregatu behar dira.

Ikastaroak ere urtarrilean hasten dira. Honakoak antolatu dituzte: adierazpen dantza, salsa, asertibitatea eta komunikazioa, lotura afektiboak eta emakumeak, gorputzaren kontzientzia mugimenduaren bitartez, masajea, yoga, tai-chi, ingelesa... Horien guztien gaineko informazioa ere 943 79 41 39 telefonoan daukazue.

EKIN ETA TRIL ELKARTEAK

Arrasaten ere, Ekin Emakumeak elkarteak ikastaro gehiago antolatu ditu: eskulanak, norbere burua defenditzeko ikastaroa, hip-hop eta funky dantza, orratz lanak... Izena emateko, deitu 943 79 83 70era.

Azkenik, Aretxabaletako Tril emakume elkarteak eskulanen eta kakorraz-lan, patchwork, puntu eta brodatu taillerak antolatu ditu.

Labur

Ardo-dastatze eta dantza ikastaroak antolatu ditu Antzuolako Udalak

Ardo-dastatze ikastaroa, batetik, eta denetariko dantzena, bestetik, antolatu ditu Antzuolako Udalak, eta izenemate epea zabalik dago udal bulegoetan. Ardo-dastatze ikastaroa eguenero izango da otsailaren 2tik aurrera, 18:30-21:00 orduetartean. Izenemate epea urtarrilaren 27an, datorren egubakoitzean, bukatuko da. Dantza ikastaroa otsailaren 11n hasiko da. Hilean behin, hileko bigarren zapatuan izango da ikastaroa, 16:30-19:00. Txa-txa-txa, mamboa, baltsea, pasodobleak... Denetarik irakatsiko dute.

Bakarrizketa barregarrien lehiaketa deitu du Debagune elkarteak

Bakarrizketa barregarrien lehiaketa antolatu du Debagunek, Debagoeneko euskara elkarten elkargoak, eta parte hartzeko aukera dago otsailaren 28ra bitartean.

Lanak idatziz eta ikus-entzunezko formatuan entregatu behar dira, lelo sistema bidez, honako helbidean: Debagune elkarteak; Bakarrizketa barregarrien lehiaketa; Errotalde jauregia, z/g; 20570 Bergara. Finalistek bakarrizketak antzeztu egin beharko dituzte. 300 eta 150 euroko sari bana emango dute.

Umeendako bi ikuskizun egingo dituzte datorren asteburuan

Umeendako bi ikuskizun egingo dituzte datorren asteburuan. Urtarrilaren 28an, zapatua, Aretxabaletako kiroldegira joango dira Pirritx eta Porrotx pailazoak *Maite zaitut* ikuskizunarekin. Sarreak salgai daude. 4 euro balio dute eta kultura etxean, kiroldegian edo ludotekan eros daitezke.

Domekan, *Cantervilleko Mamua* antzerkia egingo du Hankatxo taldeak Oñatiko Santa Ana aretoan, 17:00etan, 5 urtetik gorakoendako. Sarrerak 4 eurotan daude salgai ohiko lekuetan.

Hitzorduk



BERGARAKO AROZTEGI ARETOAK ERAKUSKETA EGITARAU ANTOLATU DU | Otsailean inauguratuko dute hurrengo erakusketa, eta urtarrila arte beste hainbat egongo dira

Bergarako Aroztegi aretoak gertu dauka hementik eta 2007ko urtarrilera bitarteko egitaraua. Hurrengo erakusketa, Iñaki Moreno Ruiz de Eginorena, otsailaren 3an inauguratuko dute. Hortik aurrera, honako egileak izango dira: Menchu Gal, Ikusteko Musika, Bergara Hiria argazki lehiaketa,

Usoa Mendikute, Bubisher elkarteak, Kirol argazki lehiaketa, Pedro Luis Ormazabal, Miguel Okina, Filatelia, Beart, Taila eta Zeramika, eta Beke.

Honako ordutegia izango du neguan: astegunetan, 18:00-20:30; zapatuak, horrez gain, 12:00-14:00; eta domekak, 12:00-14:00 bakarrik.

ZINEMA |

• *En sus zapatos* filma emango dute Arrasaten Amaia antzokian emango dute film hori gaur, astelehena, 20:30ean.

• *Harry Potter y el cáliz de fuego* filma Oñatin

Kultura etxeko zinema aretoan emango dute aipatutako filma gaur, astelehena, 19:30ean.

• *Así en el cielo como en la tierra* filma Elgetan

Etzi, eguaztena, emango dute film hori Espaloia antzokian, 21:30ean.

• *Arcadia* filma emango dute Arrasateko zineklubean

Arcadia delako filma emango dute eguenean, hilak 26, Amaia antzokian, 20:30ean.

• *La dama de honor* delako filma Oñatiko zineklubean

Eguenean, hilak 26, emango dute film hori Oñatiko kultura etxeko zinema aretoan, 20:00etan.

ERAKUSKETAK |

• Iñaki Axi Olanoren argazki erakusketa dago Elgetan

Iñaki Axi Olanoren erakusketa dago Espaloia antzokian hilaren 26ra bitartean. Gas-teizen kalean topatutako argazkiak dira; alde zaharreko bebarruetako zenbakiak, batez ere. Baita kaleko altzari, erakusleho, afixa eta estoldetan topatutakoak ere.

• Jose Felix Igartuaren margo erakusketa dago Oñatin

Erakusketa hori etzi, eguaztena, zabalduko dute kultura etxean, 18:30ean. Otsailaren 2a arte egongo da zabalik egunero 18:30etik 20:30era.

MUSIKA |

• Txistu kontzertua egingo dute Aretxabaletan

Txistu kontzertua egingo dute Leizarra Musika Eskolako txistulariek, perkusio taldeak eta haur abesbatzak etzi, eguaztena, Aretxabaletako gaztelekuan, 18:30ean. Donostiako Danborradako piezak joko dituzte.

HITZALDIAK |

• Kirmen Uribek berbaldia egingo du Antzuolan

Kirmen Uribek bere lanaren gaineko berbaldia egingo du eguenean, hilak 26, Olanaren etxean, 19:00etan.

LEHIAKETAK |

• Aratusteetako kartel lehiaketak daude bi herritan Aratusteetako kartel lehiaketa deitu dute Arrasateko eta Bergarako udalek. Arrasateko edozeinendako dago zabalik. 50 x 70 cm-ko kartelak eskatzen dituzte, bertikalak, honako testuarekin: *2006 Inauteriak Arrasate*. 400 euroko saria dago jokoan. Bergarako han bizi edo erroldatuta dago-

en edozeinendako da. Kolore eta teknika librean egindako kartelak izango dira, hori bai, 50 x 35 cm-ko kartoizko oinarrian, eta *Aratusteak 2006, Bergara* testuarekin. Irabazleak 300 euroko saria jasoko du.

IKASTAROAK |

• Gazteendako ikastaroak antolatu dituzte Arrasaten

Txalaparta, alboka, argazkigintza digitala eta sabel dantza ikastaroak daude aukeran gazteendako. Matrikula 20 euro da, 12 ikasle eta langabeendako. Argibidetarako, deitu 943 77 00 65 telefonora edo idatzi gaztebullegoa@arrasate-mondragon.net helbidera.

• Kontakt-inprobisazio dantza ikastaroa Aretxabaletan

Kontakt-inprobisazio dantzen bigarren ikastaroa egiten ari dira Aretxabaletan. Aurreko taldeko jendeak jarraitu gura zuen, eta jende berria ere sartu da. Aste Santura bitartean egingo dute ikastaroa.

• Haririk gabe konektatzen ikasiko dute Oñatin

Etxean, bulegoan edo taillerean kable bidez edo haririk gabe hainbat ordenagailu konektatu eta sarea kudeatzeko ikastaroa antolatu du Udako Teknologia eta Informazio Gizarte batzordeak. 30 orduko ikastaroa da eta urtarrilaren 30ean hasiko da.

Eguraldia



Eguzkia eta tenperatura altuxeagoak izango ditugu astean barrena

Gaur, astelehena, eguzkitsu esnatuko da eguna eta halaxe iraungo du iluntzera arte. Tenperaturek, gainera, gora egingo dute apur bat. Bihar, martitzena, antzekoa izango da, nahiz eta iluntze aldera laino alturen batzuk agertu. Hori horrela, eguztzen goiza lainoekin azalduko den arren, egunak aurre-

ra egin ahala desagertzen joango dira eta arratsalde eguzkitsu ederra geratuko da. Eguenean eguzkia izango dugu goizeko lehenengo orduetatik eta egun zoragarria izango dela iragarri dute adituek. Egubakoitzean, berriz, lainoak agertuko dira goizean eta arratsaldean ere ikusiko ditugu.

Goardiako farmaziak

ARRASATE

Astelehena, 23	Corcuera	Maisu Aranbarri, 1 (943 79 22 26)
Martitzena, 24	Irizar	Erguin kalea, 11 (943 79 12 39)
Eguztzena, 25	Amezua	Santa Marina. 32 (943 79 09 74)
Eguena, 26	Morales	Araba etorbidea, 14 (943 79 09 74)
Egubakoitza, 27	Ruiz Perez	Maalako errabala, 31 (943 79 79 99)

BERGARA

Astelehena, 23	Guallar	San Antonio, 5 (943 76 11 05)
Martitzena, 24	Estella	Matxiategi, 5 (943 76 19 63)
Eguztzena, 25	Mozos	Iparragirre, 2 (943 76 12 15)
Eguena, 26	Camacho	Oxirondo, 4 (943 76 11 74)
Egubakoitza, 27	Zabala	Barrenkalea, 25 (943 76 16 87)

OÑATI

Astelehena, 23	Anduaga	San Lorentzo, 3 (943 78 21 16)
Martitzena, 24	Anduaga	San Lorentzo, 3 (943 78 21 16)
Eguztzena, 25	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1 (943 78 01 22)
Eguena, 26	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1 (943 78 01 22)
Egubakoitza, 27	Garate	Kale Barria 42 (943 78 05 58)

ARETXABALETA

Astelehena, 23	Iturralde	Belorrieta, 1 (94308 11 43)
Martitzena, 24	Iturralde	Belorrieta, 1 (94308 11 43)
Eguztzena, 25	Iturralde	Belorrieta, 1 (94308 11 43)
Eguena, 26	Iturralde	Belorrieta, 1 (94308 11 43)
Egubakoitza, 27	Iturralde	Belorrieta, 1 (94308 11 43)

Telefono jakingarriak



OSASUNA / LARRIALDIAK

OSAKIDETZA (Larrial.)	943 46 11 11
DYA (Orokorra)	943 46 46 22
DYA (Antzuola)	943 78 71 57
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Suhiltzaileak	943 78 28 00
Ertzaintza	
Arrasate	943 79 71 99
Bergara	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko Ospital.	943 03 53 00
Antzuola	943 76 62 23
Aramaio	945 44 53 40
Aretxabaleta	943 71 19 59
Bergara	943 03 54 00
Elgeta	943 78 90 27
Eskoriatza	943 71 44 52
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 03 54 30
Hies Ekimena	943 79 26 99
Udaltzaingoa	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 14 39
Aretxabaleta	943 71 18 63

Bergara	943 77 91 06	Laian / Oñati	943 71 63 11
Eskoriatza	943 71 44 07	Hondakindegia Alternatiboak	
Leintz Gatzaga	943 71 47 46	Arrasate	943 77 11 43
Oñati	943 78 04 11	Bergara	945 76 44 42
		Oñati	943 78 36 67

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	943 45 01 31
PESA	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate	943 79 12 22
Aramaio	945 44 50 33
Aretxabaleta	943 79 22 33
Bergara	943 79 12 22
Eskoriatza	943 71 40 59
Oñati	943 78 03 65
RENFE	943 28 35 99

DEBAGOIENA

Mankomunitatea	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)	943 78 21 93
Mendi nekazaritza elk.	943 76 25 47
Nekazaritza Ganbera	943 76 10 15
Zerga Bulegoa	943 76 58 63
Euskara Taldeak	
Debagune	943 77 12 28
AED / Arrasate	943 77 12 28
Axtroki / Eskoriatza	943 71 54 34
Goibeko / Elgeta	943 78 90 85
Loramendi / Aretx.	943 77 09 70
Jardun / Bergara	943 76 08 19

Laian / Oñati	943 71 63 11
Hondakindegia Alternatiboak	
Arrasate	943 77 11 43
Bergara	945 76 44 42
Oñati	943 78 36 67

KIROLDEGIAK

Aramaio	945 44 53 35
Arrasate	943 77 16 77
Aretxabaleta	943 71 26 28
Bergara	943 76 56 41
Elgeta	943 76 82 84
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola	943 76 60 65
Aramaio	945 44 53 74
Arrasate	943 77 01 05
Aretxabaleta	943 71 10 27
Bergara	943 77 91 58
Eskoriatza	943 71 46 88
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola	943 76 62 46
Aramaio	945 44 50 16
Arrasate	943 79 09 00
Aretxabaleta	943 71 18 62
Bergara	943 77 91 00
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 44 07
Leintz Gatzaga	943 71 47 46
Oñati	943 78 04 11

Zozketak

BONOLOTOA

Astelehena, 16
11 • 15 • 24 • 39 • 45 • 48
Osagarria: 22 | Itzulketa: 3

Martitzena, 17
2 • 3 • 27 • 32 • 43 • 45
Osagarria: 31 | Itzulketa: 5

Eguztzena, 18
4 • 5 • 22 • 25 • 40 • 44
Osagarria: 43 | Itzulketa: 0

Egubakoitza, 20
8 • 10 • 19 • 33 • 35 • 45
Osagarria: 16 | Itzulketa: 6

ONCE

Astelehena, 16 **23.930**

Martitzena, 17 **33.444**

Eguztzena, 18 **09.364**

Eguena, 19 **39.047**

Egubakoitza, 20 **41.966**

Kupoitzarra (091 seriea)

Domeka 22 **95.056**

Kupoitzarra (049 seriea)

LOTERIA PRIMITIBOA

Eguena, 19
15 • 17 • 25 • 26 • 33 • 43
Osagarria: 43 | Itzulketa: 0

Zapatua, 21
2 • 11 • 23 • 26 • 41 • 48
Osagarria: 45 | Itzulketa: 5

Domeka, 22 (Saritzarra)
8 • 18 • 19 • 27 • 45
Itzulketa: 9

Gazte zerbitzuak

BEKAK |

- **Europako ikasketak.** AECI (Nazioarteko Lankidetzako Espainiako Agentzia). Florentziako Europako Unibertsitate Institutuan ikasteko. Espainiako herritarrentzat dira eta 2006ko udarako eta 2006-2007 ikasturterako dira. Epea: urtarrilak 31.
- **Euskal lankide boluntarioendako.** UNESCO ETXEA. Lizentziatura edo diplomatura. 10 beka eskaintzen ditu, hegoaldeko herritarrentzat dituen bulegoetan boluntario lanak betetzeko. Epea: otsailak 1.

IKASTAROA |

- **Instalatzailer argiketaria.** Hernani Institutua. Langabeei zuzenduta. 260 ordu. Astelehenetik eguenera

15:30etik 20:30era. Epea: plazak bete arte. Ikastaroa urtarrilaren 16an hasten da.

- **Patinaje ikastaroa.** Aretxabaletako Udala. Ikastaroa zapatu goizetan izango da. Epea: urtarrilak 18.

LEHIAKETAK |

- **SMS.** SMS bidezko Maitasun Mezuen Lehiaketa. Jardun Elkartea. Mezuak jatorrizkoak eta euskaraz idatziak izango dira. Epea: urtarrilak 15.
- **Bakarrizketa barregarrien** Igo lehiaketa. Debagoieneko Euskara Elkarteen elkargoa. Epea: otsailak 28.

LANA |

- **Atezaina.** Eibarko Kirol Instalazioen Udal Patronatuan atezain lanpostu bat betetzeko deialdia. Eibarko Udala. Epea: urtarrilak 9.

ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:
Biteri etorbidea 3. 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Kultura etxea. 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:
Foruen plaza 4. 943 71 82 57
gip@oinatigazteleku.com



Bertan salgai

ASTELEHENEKO

Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

Antzuola:

- Altzarte okindegia
- Martin okindegia

Elgeta:

- Kioskoa

Bergara:

- Bolintxo okindegia
- Ogizun okindegia
- Konde okindegia
- Olabe okindegia
- Mizpildi okindegia
- Plazako Kioskoa
- Txurrerua Kioskoa

Arrasate:

- Eroski merkatal guneko prentsa txokoa
- Balantzategi kioskoa
- Portaloiko kioskoa
- Usue paper denda
- Bolintxo Okindegia
- Kurruko okindegia

Aretxabaleta:

- Errasti kioskoa
- Ibarra estankoa

Eskoriatza:

- Dorleta liburudenda

Leintz Gatzaga:

- Labidea

Aramaio:

- Plazako kioskoa

Oñati:

- Haritza Kioskoa
- Ibarrondo Kioskoa
- Eskolatxo okindegia
- Arantxa okindegia
- Irizar okindegia
- Ogibari okindegia
- Olakua okindegia
- San Lorentzo okindegia
- Errota okindegia

Zorion agurrak



ARRASATE
Irati Larrinaga
Urtarrilaren 18an,
3 urte. Zorionak!
Arizmendi Sanvi
Txikiko lagunak.



ARRASATE
Nerea Loiti
Urtarrilaren 20an,
urtebetetzea.
Zorionak, Goienako
lankideen partetik.



ARRASATE
Iraia Nieto
Urtarrilaren 21ean,
2 urte. Zorionak!
Familia guztiaren
partetik.



ARRASATE
Urko Jaso
Urtarrilaren 26an,
4 urte. Zorionak eta
musuak!
Familiakoak.



ARRASATE
Gaizka Vitoria
Urtarrilaren 26an,
28 urte. Zorionak
Eibarko txapliguari!
Lankideak.



ARRASATE
Asier Apaolaza
Urtarrilaren 28an,
34 urte. Zorionak.
Malen, Ainhoa eta
Romu.



ARRASATE
Rafael Soriano
Urtarrilaren 29an,
54 urte. Zorionak
eta urte askotara-
ko! Etxekoak.



BERGARA
Irene Valle
Urtarrilaren 22an,
3 urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Oskar eta Maite.



BERGARA
Andoni Mujika
Urtarrilaren 22an, 9
urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Maider Bilbao
Urtarrilaren 23an,
urtebete. Zorionak
eta urte askotarako!
Gurasoak.



BERGARA
Josu Larrañaga
Urtarrilaren 28an,
4 urte. Urte askota-
rako! Etxekoak,
bereziki, Gorka.



BERGARA
Ibon Etxabarri
Urtarrilaren 29an, 8
urte. Zorionak eta
urte askotarako!
Lehengusuak.



ESKORIATZA
Sera Sanchez
Urtarrilaren 23an.
Zorionak eta muxu
handi bat. Emaztea
eta semea.



ELGETA
Aitor Ubera
Urtarrilaren 24an,
urtebetetzea. Urte
askotarako.
Lagunak.



ELGETA
Gaizka Bolinaga
Urtarrilaren 27an,
urtebetetzea.
Zorionak eta musu
handi bat. Lagunak.



Jaiotakoak



Adur Alea Fernandez
Oñati • 3,980 Kg. Urtarrilak 15. Gurasoak:
Silvia (Berriozar) eta Carlos
(Oñati). Argazkian: Adur bapo lo bere
kumatxoan.



Gaizka Arizabaleta Rodriguez
Arrasate • 3,400 Kg. Urtarrilak 16.
Gurasoak: Jone eta Balta (Zigorrola,
Arrasate). Argazkian: Gaizka aharrusi egi-
ten, aitaren besoetan.



Aimar Madina Arriola
Antzuola • 3,650 Kg. Urtarrilak 16.
Gurasoak: Amaia (Aretxabaleta) eta
Gotzon (Legazpi). Argazkian: Aimar eskua
ahora eramaten, amaren besoetan.



Laia Ugarte Atxa
Arrasate • 3,315 Kg. Urtarrilak 17. Gurasoak:
Marijo eta Isidor (Arrasate).
Argazkian: Laia, gurasoekin ospitaletik
ateratzeko orduan.



Danel Garitaonandia Galdos
Aramaio • 3,115 Kg. Urtarrilak 18. Gurasoak:
Amaia (Arrasate) eta Rafa (Aramaio).
Argazkian: Danel, bapo lo amaren
besoetan.



Olatz Barriocanal Carnedero
Bergara • 3,070 Kg. Urtarrilak 19. Gurasoak:
Arantxa eta Jon (Bergara).
Argazkian: Olatz, amaren besoetan, lasai-
lasai lotan.

Hildakoak

Flora Idarreta Sañudo
Bergaran, urtarrilaren 20an. 94 urte.



ESKELAK
ASTELEHENEKO
GOIENKARIAN
85 euro
943 25 05 01

Zoriondu ARRASATE IRRATIAN



Ikaskideak, lagunak edo
senitartekoak zoriondu
nahi badituzu, **ARRASATE IRRATIAK**
egunero ematen dizu aukera hori.

Bidali eskaria:
irratia@goiena.com helbidera
edo deitu 943 71 17 31 telefonora.

Egunero,
zorion agurren tartea
ARRASATE IRRATIAN

FM107.7
ARRASATE IRRATIA

Gaur irratian

Arrasate Irratia

FM 107.7

'Igo autobusera' | 09:30

Barakaldoko ekitaldi politikoa eta kirolak

Herritar talde batek deituta zapatuan BEC aurrean egindako ekitaldi politikoaz jarduteko, Mikel Irizar izango dute gonbidatu irratiko kideek. Kirolen tartean, Realaren eta Athleticeko arteko derbiaz arituko dira, besteak beste, Juanito Arriaranekin.

Oñati Irratia

FM 107.4

'Udazkeneko saioa' | 12:00

Fitur turismo azoka izango dute berbaagai

Eguztenezan hasiko da Fitur azoka Madrilen. Debagoienak ere bere gunea izango du Jaurilaritzaren erakusleihoan. Hala, gure ibarrak azokan erakutsiko duenaren berri izateko Ana Heriz gonbidatu dute irratiko kideek.

Radio Euskadi

FM 98.2

'Boulevard' | 09:30

Xabier Lapitzek Miguel Buen elkarrizketatuko du

Euskadi Irratia

FM 104.4

'Faktoria' | 09:08

Eguneko analisisa Marian Beitialarriarekin

Loiola Irratia


FM 99.8

'Kalez kale' | 12:00

Asteburuko gertakariei errebasoa egingo diete

GOITB programazioa

Astelehena, 23



Pilota kontuak 'Harmailatik' saioan 21:15

Asteburuko kirol ekitaldien gainbegiratu egingo du Julen Iriondok. Eskuz binakako pilota txapelketa, eta baita eskubalo derbia ere.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Behazulo.
- 14:15 Eltze beroa.
- 14:30 MI.
- 14:35 Gezi-bideak
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Munduari bueltaka:
- 15:30 MI. Eguraldia eta burtsa tartea.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Ilunpean.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:35 Gezi-bideak
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Didjeridu.
- 17:30 Motzean.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Berbaire.
- 18:15 Jaun ta jabe.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 16 mm.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Harmailatik.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Harmailatik. Kirolen gaineko saioa.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Jazz zikloa.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Amaiera.

Martitzena, 24



Boliviara joateko aukera etxetik bertatik 18:15

Munduari bueltaka saioan, Bolivia ezagutzeko aukera izango dugu; bertako herri, hiri eta mendiak bisitatuko ditugu, martitzenean.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Jazz mintegia:
- 14:15 Zera dio.
- 14:30 MI.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Elkartasun bideak.
- 15:30 MI.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Harmailatik.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:35 Gezi-bideak.
- 16:45 Albisteak.
- 17:00 Jazz.
- 17:30 Danbaka.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Erreportajea:
- 18:15 Munduari bueltaka: Bolivia
- 18:45 Albisteak
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Harmailatik.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Ilunpean: Xabier Mendiguren.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Berbaire.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Behazulo.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 25



Asier Altunaren 'Txotx' eta 'Topeka' filmak 22:15

16 mm saioan, Asier Altuna zinemagile bergararren Txotx eta Topeka film laburrik ikusiko ditugu. Horrekin batera, elkarrizketak...

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Berbaire.
- 14:15 Musika saioa.
- 14:30 MI.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Teknopolis.
- 15:30 MI.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Behazulo.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 Zera dio eta Motzean: Olatz Iturbe.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 16 mm.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Didjeridu.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Teknopolis.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 16 mm: Txotx eta Topeka laburmetraiak eta elkarrizketak.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Erreportajea.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Amaiera.

Eguena, 26



'Iparrorratza' saioan Kubara joango gara 18:15

Oraingo asteko Iparrorratza saioak Kubara eramango gaitu. Bidaia alternatiboa proposatuko digu Julen Arangurenekin; Kuban asko dago eta ikusteko.

- 13:15 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea.
- 14:15 Motzean.
- 14:30 MI.
- 14:35 Gezi-bideak.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Jaun ta Jabe.
- 15:30 MI.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Jazz mintegia.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:35 Gezi-bideak.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 16mm.
- 17:30 MKT musika.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Elkartasun bideak.
- 18:15 Iparrorratza: Kuba.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Erreportajea.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Jaun ta jabe.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Didjeridu.
- 22:45 Albisteak.
- 23:00 Berbaire. Gaurkotasuneko gaien gaineko mahai-ingurua.
- 23:45 Berriak.
- 00:15 Amaiera.

Egubakoitza, 27




Behazulo, elkarrizketa eta erreportaje saioa 21:15

Goiatz Arana kazetariak jardunbude bereziak dituzten lagunei egiten dizkien elkarrizketa eta erreportaje saio interresgarria.

- 13:00 Emisio hasiera.
- 13:20 Marrazki bizidunak.
- 13:45 Gaurkoak.
- 13:47 Erreportajea.
- 14:15 Musika saioa
- 14:30 MI.
- 14:35 Lazkao Txiki.
- 14:45 Albiste aurrerapena.
- 15:00 Iparrorratza.
- 15:30 MI.
- 15:35 Sendabelarrak.
- 15:45 Gaurkoak.
- 15:47 Didjeridu.
- 16:15 Klipak.
- 16:30 MI.
- 16:35 Lazkao Txiki.
- 16:45 Albiste aurrerapena.
- 17:00 Berbaire.
- 17:30 MKT musika.
- 17:45 Gaurkoak.
- 17:47 Ilunpean. Oihana Elortzak aurkeztutako saioa.
- 18:15 Teknopolis.
- 18:45 Albiste aurrerapena.
- 19:00 Klipak.
- 19:15 Jazz mintegia.
- 19:45 Berriak.
- 20:15 Marrazki bizidunak.
- 20:45 Albisteak.
- 21:15 Behazulo. Goiatz Aranak aurkeztutako saioa.
- 21:45 Berriak.
- 22:15 Ilunpean.
- 22:45 Albisteak.
- 23:15 Berbaire.
- 23:45 Berriak.
- 00:45 Amaiera.

Kamera aurrean



"Euskal bizikletak ikuskizun polita eskainiko du Leintz Gatzagan eta espero dugu ziklista on batek irabaztea"

JULIAN ERASO |
EUSKAL BIZIKLETAKO ZUZENDARIA
Berriak, 2006-01-20



"Orain arte hamabost laguneko taldea aritu da lanean, baina lasterketa egunean 40 herritar beharko ditugu"

JOSERRA PEREZ |
LEINTZ GATZAGAKO ALKATEA
Berriak, 2006-01-20

'16mm' saioan 'Txotx' eta 'Topeka' film laburrak

16mm:

Eguaztenez, urtarrilaren 25ean, 22:15ean
Aurkezlea: Amagoia Lasagabaster.

Eguenean, 17:00etan biremisioa.



Ikustekoa!

Urtarrilaren 23a: 072 zozketa

ASTELEHENKO GOIENKARIA

Harpidedunen

txokoa

Zorionak irabazleoi!

Gaur, urtarrilak 23, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun bazara, adi:

Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!

BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 18:30era.

Eskaintza:

Harpidetza kuota, 36 euro
2006 bukaerara arte.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa



Hauek dira aste honetako sarien irabazleak.

Zure izena zerrendan badago, **ZORIONAK!**

Bi gonbidapen FLORIDA - GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAN bi menu jateko.

(Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Koro Markaide Izurra (Eskoriatza)
- Imanol Kortabarria Anduaga (Oñati)

Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMA bisitatzeko.

(Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).

- Jose Ramon Zubiate Zenitagoia (Arrasate)
- M. Jesus Irazabalbeitia Biteri (Bergara)

Urtarrilaren 30eko sariak

- Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMA bisitatzeko (Saridun bakoitzari bi emango zaizkio).
- "ISTILU" etxeko kamisetak.



2
GONBIDAPEN!
DONOSTIAKO
AQUARIUMA
BISITATZEKO



Hamarrekoa

TOTI MARTINEZ DE LEZEA | IDAZLEA

"Gauetan idazten dut eta ahal dudan guztietan egiten dut siesta, sofan"

Oihana Elortza

1. Gauetan idazten duten idazleetako bat zara? Bai,

baina ez inspirazioa gauetan izaten dudalako, egunez astirik ez dudalako baizik. Goizetan etxeko lanak egiten ditut. Amarekin hitz egitea eta ilobarekin jolas egitea ere gustatzen zait, eta baita senarrarekin batera afaltzea ere. Martxa horrekin, gaueko hamarrek aldera hasten naiz idazten, goizeko hirurak aldera arte, gutxi gorabehera.

2. Egunero egiten duzu siesta? Ahal dudan guztietan egiten dut, sofan.

3. Pentsatu duzu historia ez den beste gai baten inguruan idaztea? Idatzi nuen behin emakume baten eguna nolako den. Arrakasta izan zuen, baina azken urteetan historian oinarritutako libururak idatzi ditut, bai.

4. Historia gustatzen zaitzulako? Bai, baina ez pertsonaia handien historia bakarrik, gehiago gustatzen zait jakitea garaiok jendea nola bizi zen: herriarren janzkera, soldata, lanbidea, pentsaera, ohitura, garraioak...

5. Nola moldatzen zara Euskal Herrian barrena gidabaimenik gabe? Garraio publikoa erabiliz. Bestalde, hitzaldiren batera joateko autobusik ez dudala ikusten badut, gonbidatzen nautenei esaten diet ea nire bila etor daitezkeen.

6. Zenbat hizkuntza dakizkizu? Frantsesa, ingelesa eta gaztelania ondo. Itzulpenak egiten ditut hiru hizkuntza horietan. Alemana eta italiera, berriz, erdizka.

7. Eta euskara gero eta hobeto. 20 urte nituenean Alkizako baserri baten egon nintzen euskara ikasten 10 hilabetez. Hango apaizak eta baserriarrek erakutsi zidaten. Gero, Europa aldean egin nituen urte asko eta galdu egin nuen ikasitakoa. Eta hona bueltatzean, gaztelaniaz hitz egin didate.

8. Larrabetzuko Bihotz Bakartien Klubeko kidea zara? Ni ez, baina semea bai. Mugimendu handiko herria da Larrabetzu.

9. Beti izan duzu ile motza? Igerilaria izan nintzen txikitari eta motza izaten nuen. Ezkon garaian, ez nuen moztu lau urtez eta beltza eta luzea izan nuen. Ile zuri asko ditut eta tindatu egiten nuen lehen, baina gehiago ez egitea erabaki nuen eta oraingoa naturala da.



RUJIZ DE AZUA

Gasteizen jaio eta Larrabetzun bizi da gaur egun Toti Martinez de Lezea. Hitz jario handiko emakumea da, eta eguneroko lanak inguruko diela ikustea gustatzen zaio. Arrakasta handia izan dute idatzi dituen eleberririk historikoei, baina idazleaz gain, itzultzailea eta ETBko gidoigilea ere izan da Toti. Eguaztanean, Oñatiko Errekalde Herri Eskolara etorriko da.

10. Nola gogoratzen dituzu telebistako urteak? Oso ondo. Egunero hamar minutuko gidoiak egiten hasi nintzen, eta 60 minutukoak egiten nituen amaieran.



Biharamuna

Marijo Deogracias

Berbei biraka

Eta azkenean BECen izan ziren guztiak edo ia guztiak. Baita segurtasunaren zaindariak ere. **Grande-Marlaskak** telebistaz ikusiko ote zuen zapatuko ekitaldia? **Raxoi** eta bere lagunek ikusi zuten eta horren kontura jardun zuten zapatuan gaizkiesaka. Horren kontura eta baita **Maragallek** eta gobernu kideek **Zapaterori** aurkeztu dioten estatutaren kontura, jakina. Hori ere txarra baita Kataluniarrendako, eta zela ez, Espainiaren batasunerako. Biraka, beti gai berdinaren gainean. Eskerrak lantzean behin bestelako birak ere egiten diren. Egubakoitzean, esaterako, Elgetan aritu ziren biraka, **Otehitzari biraka**, **Mireia Gabi-londoren** eskutik. Dantza, musika eta hitzak, **Oteizaren** inguruan biraka dituen ikuskizunak bete egin zituen Elgetara gerturatu zirenak. Hitzak, han entzun zirenak, behintzat bai, ondo esanak eta argigarriak. Horregatik, agian, hitz eder eta argigarriak esaten eta batez ere idazten dakielako aukeratu dute **Bernardo Atxaga**, Euskaltzain izateko. Oraingoz hautagaia da, baina hitzak sortzen barik sortutako hitzekin aritzen diren idazleek Euskaltzaindian lekua izan dezaten ordua badelako ere, aukeratu dute euskaltzain oso Bernardo. Gaur, baina, derbi biharamonaren astelehena izanda, kirol berbak dabilta biraka; eta horrek ez dira, futbol zelaietan ez bederen, inoiz ederrak izaten. Biraka aritzen direnak biraoak izaten dira han. Atzoko derbian ere izango ziren ba.

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

SOINUAK: Bidali, SOINU+ hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA

5767
zenbakira

Deiaren prezioa:
1,2 € + BEZA



Euskal soinu eta irudiak zure eskura!

OHARRAK

1. **BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragari
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.

2. **BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatuko, jarraituz zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Ki jaisiera bakarrik ordaindu behar duzu. Kasu guztietan dela eta GPRS sistemaren alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora. / ** Vodafone: deitu 123-ra. / *** Movistar: deitu 609-ra.

3. **ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.

4. **PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurria egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabilizaleek eskura dezatela nahiz baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.

ABESTIAK POLIFOKOAK (SMS 1) Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA

Himnoak
Eibar | EIBAR
Athletic Club | BILBAO
Osasuna | OSASUNA
Reala | REAL

Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) | AITORMENA
Aizkolari (Ikoma) | AIZKO
Amore amore (Kandideko bertsu) | AMORE
Begiak okertuta (Lin Ton Tson) | BEGIAK
Bi Minutero (Hertzainak) | BIMINU
Dub manifest (Fermín Muguruza) | DUB
Egunero (Hertzainak) | EGUNERO
EH Sukarra (EH Sukarra) | SUKAR
Eos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) | ELLOS
Enamorado de la muerte (RIP) | ENAMO
Etorzikuna (Etsaiak) | ETORKI

Ezer ez da betiko (Ken7) | EZER
Gora Herria (Nagu Gorriak) | GORA
Hator Bel-Air (Bide Ertean) | BELAIR
Haizea (Ken7) | HAIZEA
Hegal egiten (Iboiz) | HEGAL
Ikusi (Delirium Tremens) | IKUSI
Kargia (Ken7) | KEN
Inperuen arte joko (Ganbu) | INPER
Jokin Urain Hitzak (Bide Ertean) | JOKIN
Kaixo (Uru) | KAIXO
Lau Teikatu (Iboiz) | ITOIZLAU
Laztana (Laztan) | LAZTA
Lotuta egon arren (Kakain) | LOTUTA
Loretxoa (Iboiz) | LORE
Marea Gora (Iboiz) | MAREA
Musturrek sartunde (Ganbu) | MUSTURREK
Nicaragua (Kortatu) | NICA
No time for love (Hertzainak) | NOTIME

Salve (La Polla) | SALVE
Sari Sarti (Kortatu) | SARRI
Sorginen leizean (Etsaiak) | SORGIN
Txabon (Zarama) | TXATXOI
TXUS (La Polla) | TXUS

Trikitixa
Bexamelak pasta (Makia ta biak) | BEXAMELA
Bokespok (Kepa Junkera) | BOKESPOK
Hik lan eta nik jai (Tasari) | HIK
Itsas ontzi baten (Kaxkain) | ITSAS
Kupela (Egalea eta Larralaga) | KUPELA
Mila galdera (Maidi) | MILAI
Nirekin (Gozategi) | GOZATEGI
Ny Hirahira (Kepa Junkera) | HIRA
Txanpon baten truke (Aiziz) | Maderi | TXANPON

Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Baki) | SOROTAN
Bai euskarari (Pantxo) | BAI
Bakezaleak (Anje Duhalde) | BAKE
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) | BIZKAIA
Eperak (Anje Duhalde) | EPERRAK
Euskal Herrian Euskaraz (Osakorn) | EUSKAL
Euskaltzain berraren badak (Osakorn) | EUSKALDUN
Ez da posible (Mugar) | POSIBLE
Furra Furra (Osakorn) | FURRA
Galiziara noa (Osakorn) | GALIZIARA
Gernikako Arbola (Gertzel Mendibak) | GERNIKAI
Haika Mutil (Mikel Laboa) | HAIKA
Izarren hautsa (Kaber Leta) | IZARREN
Lepoan hartu ta (Pantxo) | LEPOAN
Marinelaren zai (Sorotan Baki) | MARINE
Nere herriko neska maite (B.Lertxundi) | NERE
Non geratzen den denborra (Mikel Undegarrin) | NON

O! Ama Euskal Herria (B.Lertxundi) | OIAMA
Tirauki (Osakorn) | TIRA
Txabamabaxabaxu (Mikel Undegarrin) | TXATXA
Txoria txori (Mikel Laboa) | TXORIA
Zaindu maite duzun hori (Rupar Odorkal) | ZAINDU

Herrikoia
Bagarek BAGARE
Desde Santurce a Bilbao | DESDE
Ikusi Mendizaleak | MENDI
Pintxo-pintxo | PINTXO
San Simon eta San Judas | SAN

Jaietakoak
Artillero dale fuego | ARTILLERO
Marijaita (Kepa Junkera) | JAIJA
San Fermín | FERMIN
San Martzialak alardea | SAN MARTZIAL

SOINUAK (2 sms)

Soinu izena | KODEA
1,2,3,4...Real! | REAL
Athletic luep!! | IEUP
Buztan bertsoa | BERTSO
Hartu... Aitaren ta semea... | AITAREN
Hartu... Ansar | ANSAR
Hartu... Argentinarra | ARGEN
Hartu... Mexikarra | MEXIKO
Hartu... Miamol | MIAMOL
Independenzial | INDEPEN
Irrintzia | IRRINTZI
Jotake irabazi arte! | JOTAKE
Milazu! (pilota) | MILAZU
Txalaparta | TXALA
Txoobtx | TXOTX

LOGOAK (sms1)

LAU1
LAU3
NUKLEAR
LORA
SORGIN
ARRANO